



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 20a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa. Hezkuntza Batzordeak onetsitako irizpena ([2. or.](#)).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Galar Zendeako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([4. or.](#)).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Hezkuntza Batzordeak oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2007ko irailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen helburua da testu liburuak finantzatzeko programa arautzea; programa hori funts publikoekin ordaintzen diren eta oinarrizko hezkuntza irakasten dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan aplikatuko da.

Espainiako Konstituzioak 27.4 artikuluan ezarri du oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan jasotzen da oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela pertsona guztientzat, eta 3.3 artikuluan ezartzen du oinarrizko hezkuntza lehen hezkuntzak eta bigarren hezkuntzak osatzen dutela.

Aipatu legeko laugarren xedapen gehigarriak, testu liburuei buruz ari dela, ezartzen du ikastetxeen koordinazio didaktikoko organoei dagokiela, autonomia pedagogikoaz dihardutela, irakaskuntzetan erabili beharreko testu liburuak eta gainontzeko materialak aukeratzea; betiere ikasleen adinei eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onetsitako curriculumari egokitutako zorrotasun

zientifikoa izanen dute. Halaber, ondokoekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute: Konstituzioan jasotako printzipio, balio, askatasun, eskubide eta betebeharrak; legean bertan jasotako printzipio eta balioak; Generoko indarkeriaren kontrako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta balioak, eta Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoak.

3/2006 Lege Organikoko 88.2 artikulua ezartzen du hezkuntza-administrazioek behar diren baliabideak emanen dizkietela ikastetxeei oinarrizko irakaskuntzaren doakotasuna bideratzeko.

Irakurketari, liburuari eta liburutegiari buruzko ekainaren 22ko 10/2007 Legean ezarritakoari jarraikiz eginen da testu liburuen salmenta.

Testu liburuak derrigorrezko hezkuntzak kalitatez emateko erabiltzen den hezkuntza-materialaren zati bat baizik ez direla. Beste hezkuntza-material batzuk ere badaude ikastetxeetako eta ikasgeletako liburutegietan; esate baterako, kontsulta-liburuak, entziklopediak, monografiak, esku-liburuak, ikus-entzunezko materiala, prentsa, ikastetxeek beren ikasleei eskaintzen dizkietenak eta familientzat inolako kosturik ez dutenak.

Europako ingurunekeo herrialde gehienek eta autonomia erkidego askok testu liburuen doakotasuna gauzatzeko sistemak ezarri dituzte. Gurasoen elkarrekin sistematikoki eskatu izan dute, azken urteetan, testu liburuen doakotasuna.

Hori dela eta, komenigarria da Nafarroako Foru Komunitateak testu liburuak finantzatzeari ekin diezaion, kontuan izanda doakotasuna derrigorrezko hezkuntzako mailetan modu gradualean lortuko den helburu bat dela.

Funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan testu liburuak finantzatzeko programa da Nafarroako Gobernuak aurrera eramane duen jardura,

hezkuntza zerbitzu publikoaren doakotasuna errealitate bihurtzeko.

Programa honek, halaber, errespetuzko eta baterako erantzukizunezko jarrerak sustatu nahi ditu ikasleengan, funts publikoekin finantzaturiko ondasunen erabilera dela eta; eta lagungarria izan nahi du familien eta ikastetxeen artean lankidetzari handiagoa izateko, eta ikastetxeen autonomian aurrera egiteko.

Lehen artikulua. Testu liburua.

Testu liburua da, lege honen ondorioetarako, material iraunkorra eta buruaskia, ikasleek erabiltzeko eginikoa eta Nafarroako Gobernuak hezkuntza-etapetan curriculumak garatzeko onetsi duen araudian ezarritako edukia garatzen dituen.

Bigarren artikulua. Doakotasuna.

1. Diru publikoekin ordaindutako ikastetxeetako testu liburua, alegia, ikastetxe bakoitzak oinarrizko hezkuntzan irakasteko legez aukeratu dituen haiek, dohainik izanen dira aipatu irakaskuntzan ari diren ikasle guztientzat.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira aipatu ikastetxeek eta gurasoek edo tutoreek foru lege honen xedea diren testu liburua jasotzeko jarraitu beharreko prozedurak.

Hirugarren artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean bilduko ditu testu liburua finantzatzeko behar diren kontusailak, Erregelamenduz zehaztuko diren formulen arabera.

Hirugarren bis artikulua berria. Programaren ezaugarriak

1. Testu liburua finantzatzeko programa maileguaren sistemaz garatuko da.

2. Oinarrizko irakaskuntzetako ikasleek lau ikasturtez erabili beharko dituzte liburuak, horiek aldatzeko eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloari buruz erregelamendu bidez ezartzen dena deuse-tan ere ukatu gabe.

3. Eskola Kontseiluak hautatutako batzorde bat arduratuko da ikastetxe bakoitzean programa kudeatu eta gainbegiratzeaz.

Hirugarren ter artikulua berria. Programaren ezarpena.

1. Programa ondoz ondoko ikasturteetan ezarriko da, oinarrizko hezkuntza maila guztiak hartu arte.

2. Programa 2008-2009 ikasturtean hasiko da, eta 2011-2012 ikasturtean egonen da ezarririk."

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuak, indarra hartu eta, gehienez, sei hilabeteko epean, foru lege hau erregelamendu bidez garatuko du, Hezkuntza Departamentuak proposatuta eta Nafarroako Eskola Kontseiluak bere txostena eman ondoren.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetu egiten da foru lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko arau oro.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Galar Zendeako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abuztuaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Galar Zendeako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galar Zendeako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera (5. or.).</p> <p>II. Helburua (5. or.).</p> <p>III. Norainokoa (5. or.).</p> <p>IV. Iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Ondare-egoera, ekonomia-emaizta eta 2005eko aurrekontu-kitapena (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezketasuna (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Ondorio nagusia (7. or.).</p> <p>V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Udalak aurkeztutako 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren betetze-maila (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Udaleko aurrekontu-emaizta (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Langile-gastuak (10. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.4. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Inbertsioak (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.6. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.7. Zergak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.8. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.9. Jasotako ohiko transferentziak eta kapital transferentziak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.10. Ondarearen diru-sarrerak eta herri-ondasunen aprobetxamendukoak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.11. Inbertsio errealeen besterentzea (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.12. Hirigintza (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.13. Udalaren egoeraren balantzea (27. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.14. Udaleko ekonomia-emaizta (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.15. Barne-kontrola (30. or.).</p> <p>1. Eranskina. Galar zendeako udaleko finantza-egoerak, 2005eko abenduaren 31n (32. or.).</p> <p>2. Eranskina. Ekonomia-emaizta doituak, 2005eko abenduaren 31n (36. or.).</p> <p>3. Eranskina. Galar zendeako udalaren finantza-eta ekonomia-egoeraren azterketa (38. or.).</p> <p>Galar Zendeako Udaleko Alkateak egindako alegazioak (39. or.).</p> <p>Galar Zendeako Udaleko Alkateak egindako alegazioen erantzuna (40. or.).</p> |
|---|--|

I. SARRERA

Abenduaren 20ko 19/1984 Foru Lege arautzaileari jarraiki, Nafarroako Comptos Ganberak Galar Zendeako Udaleko kontuen fiskalizazioa egin du, 2005eko ekitaldiari dagokiona, hain zuzen.

Galar Zendeako Udala Iruñerrian dagoen udal konposatua da, eta Iruñeko merindadearen baitan sartzen da. 2005eko abenduaren 31n, 1.456 biztanle bizi ziren bertan, eta 44,81 km²-ko hedadura zuen.

Galar Zendea honako zortzi kontzeju hauek osatzen dute:

- Arlegi
- Cordovilla
- Espartza

- Ezkirotz

- Galar

- Olatz

- Getze

- Subitza

Halaber, jendea bizi den Barbataingo eremua bertan sartzen da.

Bestalde, honako bi mankomunitate hauetan sartzen da:

- Iruñerriko Mankomunitatea.
- Noaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

2005eko abenduaren 31n, honako kopuru hauek zituen Galar Zendeako Udalak.

Entitatea	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileria
Udala	13.401.716	5.421.290	3.844.515	12

Lana bi teknikarik eta ikuskari batek osatutako taldeak egin du, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Landa-lana 2007ko urtarrilaren 10ean hasi ziren egiten, eta martxoaren 20an amaitu zuten.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langileei, lana burutzeko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeari (abenduaren 20koa), Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeari (uztailaren 2koa) eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeari (martxoaren 10ekoa) jarraiki, Galar Zendeako Udaleko 2005eko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-jarduerak fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatu dakiokeen araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutako legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuak, eta administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa arautzen dituen araudiak, bai eta Nafarroako toki-entitateei aplikatutako den gainerako araudiak ere.

Aurrekontu- eta kontabilitate-gaietako araubide juridikoa 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru-dekretuetan dago ezarrita; foru-dekretu hori-

ek, hain zuzen, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari, eta Nafarroako toki administrazioarentzako kontabilitate-instrukzio sinplifikatuari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

Txostenaren helburua honako alderdi hauei buruz dugun iritzia agertzea da:

a) Udalaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2005eko abenduaren 31ko Udaleko ondare-egoera eta ekonomia- eta ondare-emaizta agertzea, aplikatu dakizkiokeen kontabilitate-printzipioei jarraiki.

c) Udalaren ekonomia- eta finantza-jarduera legearen arabera garatzen den ala ez aztertzea.

d) 2005eko abenduaren 31n, Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa zein den agertzea.

III. NORAINOKOA

Dagokion foru-lege arautzaileari eta 2006rako onartutako jarduketaren programari jarraiki, Comptos Ganberak toki-entitatearen 2005eko ekitaldiko kontu orokorren fiskalizazioa egin du; bertan, aurrekontu-kitapenaren espedienteak, ekonomia-emaizten egoera, balantze-egoera eta entitatearen beraren eranskinak sartu dira.

Toki-entitatearen kontu orokorrei buruzko informazioa Kontuen Batzorde Bereziak eman zuen,

2006ko maiatzaren 23an, eta, 2006ko ekainaren 10ean, udalbatzak onartu egin zuen.

Lana egiteko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko ikuskatze-printzipioak eta –arauak hartu dira oinarri; horiek, zehazki, Comptos Ganberak garatu zituen, bere fiskalizazio-eskuliburuan. Lanean, halaber, inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba eta ikuskatze-teknika guztiak aplikatu ditugu.

Fiskalizazioa egiteko, Udalaren ekonomia- eta finantza-egoeraren azterketa nahiz aurrekontua betetzeko gastu eta diru-sarreraren, balantzearen eta emaitza-kontuaren berrikuspena hartu dira oinarri, bai eta hirigintza-kudeaketa ere (bereziki, hirigintza-hitzarmenak eta -kontratuak); horretarako, antolaketaren, barne-kontrolaren eta kontabilitatearen alderdiak aztertu dira.

Txostenean, bestalde, Udaleko barne-kontrola eta ekonomia-kudeaketa hobetzeko egokitzat jo ditugun oharrak eta aholkuak erantsi dira.

IV. IRITZIA

IV.1. ONDARE-EGOERA, EKONOMIA-EMAITZA ETA 2005EKO AURREKONTU-KITAPENA

Aurreko atalean zehaztutako norainokoa duen ikuskatze-lana egin eta gero, ondorioztatu da ezin dugula iritzirik eman Udaleko finantza-egoerei buruz; hau da, ondare-egoerari, 2005eko abenduaren 31ko ekonomia-egoerari eta Udaleko aurrekontu-kitapenari buruz. Izan ere, finantza-egoera eta kontabilitateko egoera-orria aztertu ondoren, honako ondorio hauek ateratu dira:

- Beharrezkotzat jo da finantza-egoerak doitzea eta zuzentzea, Udalaren ekonomia- eta finantza-egoera, ekonomia-emaitza eta egindako jarduera behar bezala isla dezaten. Egiaztatu ahal izan dugunez, gastu eta diru-sarrera batzuk ez dira dagokien ekonomia-atalean eta/edo ekitaldian sartu; horrez gain, ez dira gauzatu edo kontabilizatu zegozkion diru-sartzeak eta eskubideak, eta/edo egindako eragiketak ez dira behar bezala kalkulatu eta kontabilizatu.

Ekonomia-emaitzari dagozkion doitzeak soilik kontuan hartuz –hau da, gastuak eta diru-sarrerak dagozkien ekonomia-multzoetan ez sartzeak eragindakoak sartu gabe (horiek, funtsean, egiturari eragiten baitiote)–, 2005eko ekitaldiko ekonomia-emaitza, egiaz, 1.700.035 eurokoa izan zela kalkulatu dugu, eta ez 1.465.629 eurokoa. Bi kopuruen arteko aldea 235.050 eurokoa da; izan ere, gastuak 161.375 euro gehiago izan ziren, eta diru-sarrerak, 396.425 euro gehiago.

Balantzearen 2005eko “Ibilgetu materiala” eta 2004ko “Finantza-kontuak” kapituluetan, zenbateko negatiboak agertzen dira (-727.555 € eta -284.337 €, hurrenez hurren), baina zenbateko horiek okerrak dira.

Diruzaintza-gerakinaren egoeraren arabera, funts likidoen kopuru bera zegoen 2005ean eta 2004an; aldiz, 2005eko ekitaldiaren amaieran, baliabide likidoak 3.844.725,29 eurora iritsi ziren, eta ez 3.904.002 eurora. Hori dela-eta, gerakina 5.381.222 eurokoa izanen zen.

- Egiaztatu da ez dagoela ondasunen inbentario eguneratu eta errealik; beraz, kontabilitateari dagokionez, ezin da jakin Udalaren lurzoru-ondarea, ez eta horren ekonomia-egoera eta inbentario-balioa ere.

- Frogatu ahal izan denez, zenbait eskubide ez dira ekitaldian bete, eta, horrez gain, aurrekontuan sartutako inbertsioak eta proiektuak ez dira egin edo atzeratu egin dira. Aurreikusitako inbertsioen %15,5 eta gastuen %28,7 soilik bete dira.

- Azkenik, barne-kontrolan ahuleziak hautesman dira, eta, ahulezia horiek direla-eta, ezin da bermatu egin beharreko izapideak (behar bezala baimendutako guztia erregistratzea, berrikustea, kobratzea eta ordaintzea) behar den unean betetzeko bitarteko eta prozedura egokiak jarri direla.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Gure iritziz, Galar Zendeako Udaleko ekonomia- eta finantza-jarduera legezkontasun-printzipioari jarraiki gauzatu da, oro har; dena den, zenbait salbuespen aurkitu dira, eta horiek beheko parafoetan adierazi dira.

- Aholkulari juridikoa kontratatu aurretik, plantilla organikoan ez da lanpostu hori sartu, eta, halaber, aurrekontuan ez da behar bezala adierazi aldi baterako lanpostu horri dagokion maila eta ordain-saria. Baldintza horiek funtsezkoak dira kontratatze hori baliozkoa izateko, eta udalbatzaren osoko bilkuran erabaki behar da. Ikus V.3. ataleko oharra.

- Galar Zendeako Udala hirigintza-alorrean aholkatzeko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua kontratatzea.

Horri dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:

Kontratututako zerbitzuaren zehaztasun falta; izan ere, proiektu horiek egiteko udalbatzak duen gogoaren mende dago 12.000 eurotik beherako proiektuak idazteko eta horiei dagozkien lanak zuzentzeko zeregina nork beteko duen erabaki-

tzea. Horrez gain, indarreko aldiaren esleitu diren 12.000 eurotik beherako proiektu guztien zenbatekoek negoziatutako prozedurarako ezarritako mugak gainditu dituzte. Ikus V.4. ataleko oharra.

Hasierako kontratuan aldaketak egin dira, eta, horien ondorioz, esleipen-prezioa %50 gehitu da; gainera, zenbatekoaren gehitze hori ez da behar bezala justifikatu.

Bestalde, kontratuak 6 urteko gehieneko epea gainditu du, 2006ko urriaren lehen egunean amaitu behar baitzen, berez.

- “Udal Plan Orokorren Berrikuspena” kontratua

Udal Plan Orokorren berrikuspen-kontratuaren eskaintza Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu zen; baina, kontratuaren zenbatekoa zela-eta (150.000 €), egunkarrietan ere argitaratu behar zen.

- Hirigintza

- Hirigintza-hitzarmenen erregistroa ez da behar bezala egin.

- Aztertutako bi hitzarmenak dagokienez (bata, Ezkirotzeko S-2 sektoreko lursailari buruzkoa, eta, bestea, Barbataingo aurretiko hitzarmenari buruzkoa), ezin da ziurtatu argitaratze-baldintza guztiak bete direnik.

Aurrez aipatutako lehen hitzarmenean ez dira bete hirigintza-hitzarmenetan eskatzen dituzten eta, hitzartutako dirulaguntzek hirigintzarekin duten lotura dela-eta, hitzarmen horrek bereziki bete behar dituen izapidetze-, artxibatze- eta erregistro-baldintzak. Hitzarmenaren jatorria lursail horiek Udaleko Plan Orokorrean zehaztuta dituzten erabilereko egokitasun falta da; izan ere, indarrean dagoen legediari jarraiki, lursail horiek aire-zortasunak eta –mugak dituzten lursailak egokitu behar ziren. Udal Plan Orokorra izapidetu eta onartu zen unean, jada finkatuta zeuden zortasunak eta muga horiek. Ikusi horri buruzko xehetasunak V.12 atalean.

- Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroan ez dira sartu hirigintza-aprobetxamenduen lagapenaren, trukeen edo jabetza-kentzeen ondorioz espazietan lortutako lursailak eta eskubideak.

IV.3. ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, honako hau adieraz dezakegu:

Aزتتutako aldiari dagokionez, Galar Zendeako Udalaren ondare-egoera ona da. Zergen diru-sarrerak eta diru-sarrera arruntak Nafarroako herrien batez bestekoaren gainetik daude, eta

diruzaintza-gerakina garrantzitsua da: 5.381.222€; horrez gain, ez du zorrik eta finantza-gasturik. Finantzarako ahalmena du, eta aurrezki garbia lortzen du; horrez gain, epe ertainera begira, behar besteko autonomia du finantza-aldorrean, eta, beraz, Nafarroako Gobernuaren transferentziarikiko finantza-mendekotasuna txikia da.

Hala eta guztiz ere, egindako azterketan egiaztatuta ahal izan denez, finantza-egoeretan ez da behar bezala jaso ekonomia- eta finantza-jarduerak, eta, beraz, horiek ez dute benetako egoera islatzen; izan ere, hainbat hutsegite egin dira, esaterako: indarreko legedian baimentzen ez diren zenbait ekintza gauzatu dira, obra- eta proiektu-aurreikuspenak ez datoz bat benetako jardute-aukeren kalkuluekin, eta proiektu garrantzitsuak (Udalaz gaindikotako eragina dutenak, bereziki) poliki egiten dituzte eta/edo, bestela, geldituta edo bertan behera utzita daude. Horrez gain, barne-kontrolaren ahuleziak agerian gelditu dira, eta, beraz, arriskua dago eskubideak eta diru-sarrerak galtzeko.

Era berean, akatsak hauteman ditugu 2006ko aurrekontuaren egoeretan; horrenbestez, indartu egin da egoera horietan dagoen informazioaren fidagarritasunaz genuen ustea.

Beraz, 2006ko exekuzio-zerrendetan agertzen diren hasierako gastuen aurrekontu osoa 13.382.869 eurokoa da, eta ez 9.415.622 eurokoa; betetze-mailaren ehunekoari dagokionez, berriz, %33,96 agertzen da, eta ez benetako %42,81.

Dena dela ere, azpimarratu behar da udal-arduradunak egoeraren jakitun direla, eta, gainera, prest daudela Comptos Ganberak txosten honetan azalduko aholkua jarraitzeko.

Batez ere, honako hau aholkatzen dugu:

a) *Aurrekontuak eta jarduera-programazioa*

Obren eta proiektuen presa, premia eta lehenetsuna ebaluatzea; bereziki, sinatutako hitzarmenaren xedeei dagokienez.

Aurrekontu-zuzkidurak zehaztasunez kalkulatzeko eta programatzeko, aurreko ebaluazioan oinarrituz eta ekitaldi horretan gauzatzeko dauden benetako aukerak kontuan hartuz; horrela, udal-garapenerako itxaropenetan eta asmo onetan oinarritutako urteko aurrekontua onartzea saihestuko da.

b) *Inbentarioa eta ondarea*

Ondasunen eta eskubideen inbentario eguneratu eta osatu bat ezartzea eta horren jarraipena egitea, 273/98 Foru Legearen 101. arauan eta ondorengoetan adierazitakoari jarraiki. Udalbatza-

ren osoko bilkuran, inbentarioari egiten zaizkion urteko zuzenketak onartzea.

Udalaren lurzoru-ondarea Udaleko gainerako ondasunetatik bereiztuta kudeatzea, eta ondasun-inbentarioan loteslea edo bereizlea den adieraztea. Udalaren lurzoru-ondarearen erregistro bat sortzea; bertan, erregistroan sartutako nahiz bertatik ateratako lurrak edo esku-dirua adieraziko dira, behar bezala justifikatuta, Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean zehaztutako xedeetarako.

c) Aurrekontu-kudeaketa eta barne-kontrola

Kontratatzeeekin eta argitaratzeeekin lotutako araudia errespetatzea, aurreikusitako garapenak direla-eta behar diren langileen premiak aztertzea, eta "hirigintza-aholkularia" eta "hirigintzako zerbitzu teknikoa" lanpostuen egoera erregulatzea.

Kontabilitateko egoera-orriak sistematikoki eta aldian behin berrikusteko prozedurak ezartzea; horretarako, aurrekontu horiek egiten eta aurkezten hautemandako funtsezko akatsen jatorria aztertuko da (hau da, informatika-sistemaren arazoak diren eta/edo langileek datuak erabiltzean sortutako arazoak diren). Halaber, horiek berriro gerta ez daitezzen eta aurrekontuen espezifikotasun-printzipioa eta urterokotasuna errespetatzen direla berma dadin beharrezko neurriak hartzea.

Funtzioak egoki banatuta daudela eta horiek behar bezala betetzen direla bermatzea; bereziki, gastu, kobrantza eta ordainketen baimen-emateak, idazkaritza, kudeaketa (hirigintzako barne), kontabilitatea, diruzaintza eta kontu-hartzailetza.

Udalaren interesak eta kudeatzen dituen zenbatekoak aintzat hartuta, egokia litzateke kontu-hartzailetza eta hirigintzako zerbitzu teknikoak indartzeko aukera kontuan hartzea; horretarako, langileak hartuko lirateke, lan-talde propioan edo mankomunitatean. Gastuak gehiegizkoak direla iritziz gero, giza baliabide egokiak lortzeko beste bide batzuk bilatzea; esaterako, beste toki-entitate batzuekin lankidetzan aritzea.

Erabilgarri dauden funtsei dagokienez, sinatze-eta balioztatze-arauak errespetatzen direla bermatzea, bai eta aurrez baimendutako eta gainbegiraturako eragiketak direla ere. Gutxienez hilean behin, banku-berdinkatzeak egitea, kontabilitateko diruzaintzaren saldoa finantza-erakunde bakoitzean ekitaldi-amaieran egiaz dagoen zenbaterako doitzeko.

Eskatutako baimen-emateen, erregistratzen, kontabilizatzeko-prozesuen, exekutatzeko eta justifikatzeko baldintza formalei jarraiki, gastuak eta

diru-sarrerak kudeatzeko prozesuak errespetatzea eta betetzea. Mekanismo eta prozedura bereziak garatzea eta ezartzea, hainbat zeregin behar bezala betetzen direla bermatzeko; hau da, zerga-kitapenak egiteko datu garrantzitsuak behar bezala gordetzen eta izaten direla, aitortutako eskubi-deak jendeari bere garaian jakinarazten zaizkiola, eskubideak egoki gordetzen eta/edo kontabilizatzen direla, eta horien kobrantza eta kontabilitate-erregistroa eraginkortasunez egiten direla bermatzeko.

d) Hirigintza

35/2002 Foru Legearen 26.1. artikuluan aurreikusitako hitzarmen-erregistroa garatzea, eta prozedura bereziak jartzea, Udalaren lurzoru-ondarean eragina duten eragiketak eta, bereziki, diruaren ordainetan lagatzen diren hirigintza-aprobetxamenduak erregistratzeko eta horien finantza- eta kontabilitate-egoeraren jarraipena egiteko.

Hitzarmenetan, aldi baterako egindako programazioa –horiek betetzeko epeak zehaztuta– eta eskubideen kobrantza aipatzea; horrela, sinatutako hitzarmenak eta kobrantzak data zehatzik gabe atzeratzea saihestuko da.

Udalaz gaindi eragina duten hitzarmenak behar bezala egiten laguntzeko, entitate publikoek –Udalak eta Nafarroako Gobernuak– lehenik eta behin ados jarri behar dute, eta, gero, adostu dituzten eta beharrezko diren txosten teknikoetan jasotako aukeran oinarrituta, jabetzarekin plangintza-hitzarmena sinatu beharko da. Horrez gain, sinatutako hitzarmen orok beharrezko jendaurreko informazio-aldia duela bermatu behar da.

Udalak Lurzoruaren Mahaiaren helburuei emandako laguntzari dagokionez, ikusi ahal izan dugu Gobernuak eta Udalak planteamendu desberdina dutela "Barbataingo" hirigintza-xedeei buruz.

Bestalde, neurri eta baliabide egokiak aplikatzea, Udal Plan Orokorreko aurreikuspenak betetzen direla bermatzeko; besteak beste, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoak.

e) Epe ertainera eta luzera

Egungo egoera baliatzea, diru-sarreraren eta gastuen behar besteko egitura malgua finkatzeko; horrela, baliabide orekatuak erabiliz, etorkizuneko ekitaldietan beharrezko zerbitzuetako inbertsioak eta hobekuntzak egitea bermatuko da.

Zerbitzuen kostu-azterketak edo, hala badagokio, prezioak eta tarifak eguneratzea.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Txostenaren atal honetan, egindako lanari esker ateratako ondorio nagusiak eta hautemandako urritasunak zuzentzeko ganbera honek emandako gomendioak azaldu dira; ondorio eta gomendio horiek 2005eko ekitaldiko fiskalizazioan berrikusitako hainbat arlori dagozkie.

V.1. UDALAK AURKEZTUTAKO 2005eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

Aurrekontua	Behin betikoa	Aitortuak	Betetzea	Kobrantzak/ ordainketak	Kobrantzak
Sarrerak €	13.401.716	5.421.290	%40	3.303.255	%61
Gastuak €	13.401.716	3.844.515	%29	3.127.215	%81
Aurrekontuaren suberabita edo defizita		1.576.775			

2005eko ekitaldian aitortutako eskubideak 5.421.290 eurora iritsi ziren; hau da, diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenaren %40.

Besteak beste, "Eraikuntzen, instalazioen eta lanen zeharkako zergak" 2. kapitulua betetzea azpimarratu behar da, diru-sarreraren %42 ordezkatzeko baitu; betetze-mailari dagokionez, aurreikusitakoa baino %125 handiagoa izan zen.

Bestalde, "Hiri-lurren balioa handitzea"aren gaineko zerga ez zen 2005. urtean kitatu.

"Benetako inbertsioak besterentzeak" 858.921 euroko diru-sarrerak eragin zituen; horien %13 dago eginda, eta, ekitaldi-amaieran, artean kobratzeko zeuden.

Kapital-transferentziak eragindako diru-sarrerei dagokienez (751.371 €), betetze-maila %26koa izan zen.

2005eko ekitaldian sortutako eskubideen kobrantzak, berriz, %61ekoak izan ziren.

Bestalde, ekitaldian aitortutako betebeharrak (guztira, 3.844.515 €) gastuen behin betiko kredituen betetze-mailaren %29 izan ziren.

Sortutako gastuei dagokienez, berriz, %81 ordaindu ziren, 2005eko ekitaldian.

Gastu-kapitulu garrantzitsuenak "Ondasun arruntak eta zerbitzuak", "Ohiko transferentziak" eta "Inbertsioak" izan ziren, eta horiek aitortutako betebeharrak guztien %19, %17 eta %41 bildu zuten, hurrenez hurren.

Gastuen betetze-maila hain txikia (%29) izatearen arrazoia aurreikusitako lanak atzeratzeari edo ez egiteari dagokio, funtsean; besteak beste, udal-hautzaindegia, kiroldegia edo Subitzako jauregia. Horrek nabarmen eragin zuen gastuen betetze-mailan, eta, neurri batean, baita horiek finantzatzeko diru-sarreraren kontrakotuan ere.

2005ean, ez zen aurrekontu-aldaketen izapidetze-prozesu formalik egin.

2005eko aurrekontuan, bi kreditu erantsi ziren, guztira 487.454 euroko balioa zutenak; horiek, hain zuzen, 2004. urtetik egiteke zeuden bi proiektu gauzatzeko ziren: udaletxearen eta udal-kiroldegia-aren eraikuntzak (252.566,64 € eta 234.887 €, hurrenez hurren). Kredituak eranstearen justifikazio formala agintariak kontabilitate-dokumentuan egindako sinadura da.

Gure gomendioak honakoak dira:

- *Aurrekontu-zuzkidurak kalkulatzeko, ekitaldi horretan gauzatzeko dauden benetako aukerak kontuan hartuz; horrela, udal-garapenerako itxaropenetan eta asmo onetan oinarritutako aurrekontua onartzea saihestuko da. Aurreikuspenen oinarri denboran egiteko aukerei buruzko azterketa tekniko egokiak eta zehatzak izan beharko lirateke.*

- *Kredituak eransteko erabakiak eskumena duten organoek onartzea.*

- *Aurrekontu-kontrola eta -jarraipena indartzea, aurrekontu- eta kontabilitate-programatik ateratzen den informazioa egoki aztertuz.*

V.2. UDALEKO AURREKONTU-EMAITZA

2005. urtean, Udalaren aurrekontu-emaitza positiboa izan zen: doitu gabea 1.576.775 eurokoa izan zen, eta doituia 1.452.991 eurokoa. Bestalde, 2000tik 2005era bitarteko aurrekontu-emaitza positiboak zirela-eta, kalkulaturako superabit osoa 4.950.522 eurokoa izan zen.

Kalkulaturako aurrezki garbia 2.023.043 eurokoa izan zen; bertan, zergen diru-sarrerak eta diru-sarrera arruntak, gastu arruntak kenduta soilik sartzen dira. 2000-2005 aldian, kalkulaturako aurrezki garbia 5.986.238 eurora iritsi zen.

Hainbat arlo aztertu ondoren (azterketa hurrengo ataletan deskribatu da), agerian gelditu da beharrezkoa dela aurrekutatuko zenbatekoak fiskalizazioa egin ondoren lortutako zuzenketekin doitzea, benetako aurrekontu-emaitza lortzeko.

V.3. LANGILE-GASTUAK

Langileei dagokienez aurreikusitako eta izandako gastuak honako hauek izan dira, ekonomia-artikuluen arabera:

Kontusaila	Aurreikusia	Aitortuak	%	Ordainketak	Ordainketak	Kreditu-gerakina
12. art.- Funtzionarioak	65.286	65.835	101	65.835	100	-549
13. art.- Lan-kontratudunak	232.000	212.753	92	212.753	100	19.247
14. art.- Bestelako langileak	6.500	1.238	19	1.238	100	5.262
16. art.- Giz. seg.	132.500	129.332	98	129.332	100	3.168
I. kap. Langile-gastuak	436.286	409.159	94	409.159	%100	27.127

Langile-gastuak 409.159 eurora iritsi ziren 2005ean, aurreko urtean baino %11,56 gehiago.

2005eko langileen plantilla organikoa eta langile-zerrenda udalbatzak onartu zituen 2004ko abenduaren 22an, eta, gero, NAOren 13. alean

argitaratu ziren, 2005eko urtarrilaren 31n. Horren arabera, plantilla 12 lanpostuk osatzen dute; hiru funtzionarioak dira, zazpi lan-kontratu finkoa duten langileak, eta azken biak aldi baterako lan-kontratu duten langileak.

Maila	Lanpostua	Lanpostu-mota				Lanpostu hutsak
		Guzt.	F	LF	A BL	Lanp. hutsak
A	Idazkaria	1	1			1 finkoa
A maila, guztira		1	1			
B	Kultur koordinatzailea	1		1		
	Enplegu-agentea:	1			1	1 ABL, egin gabe
B maila, guztira		2		1	1	
C	Administrari ofiziala	2	1	1		
	Aguazila	1	1			1 finkoa
C maila, guztira		3	2	1		
D	Administrari laguntzailea	2		2		1 LF
	Askotariko eginkizunetarako lang.	1		1		
	Kiroldegiko mantentzailea	3		2	1	
D maila, guztira		6		5	1	
2005eko langileak, guztira		12	3	7	2	5

Langile-arloa aztertu ondoren, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Langileei eragiten dieten baldintza pertsonalak eta administrazio-egintzak fitxategi desberdinetan jasotzen dira. Ez dago langile bakoitzaren familia-egoera justifikatzen duen dokumenturik, gero dagokien PFEZren deskontua egiteko eta familia-laguntza kobratzeko.

Langile bati, bere nominako hileko ordainsari garbiaren eskersaria ordaindu zaio, baina ez dago

agiririk horretarako eskumena duen pertsonak baimena eman duela adierazten duenik.

Beste langile batek, berriz, aldaketak izan ditu irailleko eta urriko nominetan, ordutegia eta ordain-saria aldatu dituelako; baina, hala ere, ez dago aldaketa horren idatzizko baimenik.

Langile-nominak gestoria batek egiten ditu, eta, oro har, ez da bidaltzen dituen nomina horien kontrolik eta jarraipenik egiten.

Horrez gain, Udaleko langileei eman beharreko familia-laguntza gaizki kalkulatu eta ordaindu zen 2005ean. Hau da, E mailaren %3,5eko laguntza ezarri zen haur bakoitzeko, eta, berez, %3 ezarri behar zen; gainera, bi hilabetetan bikoiztuta ordaindu zen. Udalak adierazi digunez, egoera erregulatzen hasi dira. Bestalde, familia-laguntza-ko aurrekontuaren kontusailean (Udaleko kuota) bost hiruhileko zeuden sartuta: 2004ko laugarren hiruhilekoa eta 2005eko lau hiruhilekoak.

Gomendioak:

- *Langileei buruzko espedienteetan, bakoitzaren baldintza pertsonalak eta horiekin lotuta egiten diren administrazio-egintza guztiak adierazi behar dira.*

- *Langileen eskubideak legezko eta arauzko xedapenen nahiz aplikatzea daitezkeen hitzarmenen baitan egon behar dira, eta horiek aitortzeko organo eskumendunek eman behar dute baimena.*

- *Langileen ordutegi- eta ordainsari-aldaketak ere eskumena duten agintariek baimendu behar dituzte, eta baimen-emate horren berri jaso behar da bakoitzaren langile-espedienteetan.*

- *Gestoriatik bidalitako nominak berrikustea ordaindu aurretik, eta berrikuste horren emaitzak idaztea.*

- *Aholkulariaren lanpostua zerbitzu-kontratu baten bidez bete izan da 2001. urtea baino lehenagotik, eta "Materialak, hornidurak eta beste batzuk" ataleko aurrekontuaren 22. artikuluan oinarritu da. Kontratuaren behartze-erakundeak, ondoriozta dezakegu, egiaz, pertsona bat alkatearen aholkulari juridikotzat izendatzen dela, aldi baterako.*

Alkate-presidenteak aholkulari juridikoa kontratatu aurretik, plantilla organikoan ez zen lanpostu hori sartu, eta, halaber, aurrekontuan ez zen behar bezala adierazi aldi baterako lanpostu horri zegokion maila eta ordainsaria; baldintza horiek, hain zuzen, oso garrantzitsuak dira kontratatze honi balioa emateko eta, gainera, udalbatzako osoko bilkurak du horien eskumena.

Gure gomendioa egoera legezztatzea da; horretarako, beraz, organo eskumendunak Galar Zendeako Udaleko plantilla organikoan sartu behar ditu aldi baterako langileentzat gordetako lanpostuak, bai eta langile horien kopurua, mota eta ordainsariak ere. Hori guztia, gainera, toki-entitate-etako aurrekontuetan behar bezala adieraziko da.

Horrez gain, langile horiei dagokien gizarte-babesaren erregimena aplikatu behar zaie.

- Enpleguaren eskaintza publikoan bete gabeko bi lanpostu ageri dira; 2003. urtetik, gainera, hala ageri ziren enpleguaren eskaintza publikoetan.

- Administrari laguntzailea. Zerbitzu Orokorrak. Lan-kontratudun finkoa. Oposizio-lehiaketa bidezkoa. D maila.

- Enplegu- eta garapen-agentea. Zerbitzu Orokorrak. Aldi baterako lan kontratupekoa. Oposizio-lehiaketa bidezkoa. B maila.

Enplegu- eta garapen-agentearen lanpostua sortzea dagoeneko aurreikusita zegoen; zehazki, Galarian egitekoak ziren haurtzaindegia onduz (oraingoan, ez dute egin). Ikusi V.12. atalean honi buruz egindako oharra.

2003. urtean, Udalak enpresa bati eskatu zion "hobekuntza-plan" bat egiteko; geroztik, partzialki hartu da kontuan Udal-antolaketa.

Gure gomendioa: Udal-langileen premiak aztertzea, plantilla organikoa eta eskaintza publikoa premia horien arabera jartzea, eta langileei egindako ordainketa okerrak erregularizatzea.

V.4. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Aurrekontuaren 2. kapituluaren jaso diren ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 731.487 eurora iritsi ziren, 2004an baino %2,63 gehiago; guztira, behin betiko kredituen %81 bete zen. Bestalde, 2005eko ordainketa aitortutako betebeharren %93 izan ziren.

Ondasun arruntak eta zerbitzuak direla-eta, 2005ean aitortutako betebeharrak honako aurrekontu-artikulu hauei dagozkie.

Zatikako deskribapena	Aurreikuspena	Betebeharrak	%	Ordainketak	%	Saldoa
20. art. Errentamend.	0	45.452		22.993	51	22.459
21. art. Eraikuntza-konponketak	253.000	194.156	77	182.736	94	19.415
22. art. Materialak, homidurak	586.100	455.199	78	435.784	96	984
23. art. Zerbitzu-indemnitazioak	40.300	36.680	91	35.696	97	0
28. art. Ustekabek.	20.000	0	0	0		
Ondas arrunt. eta zerbitz.	899.400	731.487	81	677.210	93	54.278

Ondasun- eta zerbitzu-alorra aztertu ondoren, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Aztertutako gastuek fakturak eta ordainketa-agiriak dituzte euskarritzat. Hala eta guztiz ere, ez dago gastu horiek egiteko presidenteak edo horren ordezkariak emandako idatzizko baimenik, aurrekontuaren betetze-mailako 20. oinarriak gas-tuak baimentzeari dagokionez adierazten duenari jarraiki. Normalean, fakturretan ez da ageri sinadurarik edo OERik (Ontzat Eman), eta hori beharrezkoa da fakturari onespina emateko eta horren ordainketa agintzeko. Oro har, ez dago kontratu bakoitzaren banakako espedienterik, egindako administrazio-dokumentu guztiak biltzen dituenik.

- 2005eko abenduan eraikin berrira lekualdatu aurretik, Udala garbitzeaz arduratzen den pertsonak ez zuen kontraturik, eta, horrez gain, ez zegoen gizarte-segurantzian alta emanda. Ordainduta-kopurua, 4.232 €, urtero eguneratzen da, eta ez da emandako zerbitzuaren fakturarik edo agiririk egiten.

– “Zinegotzientzako diru-kopuruak” direla-eta ekitaldian sartutako zenbatekoaren %9,42 2004ko ekitaldiari dagokio.

- Bestalde, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu bat kontratatzea proposatu da, Galar Zendeako Udalari hirigintza-alorreko aholkuak emateko, sailkatutako jardueri buruzko informazioa eman eta horiek kontrolatzeko, eta Udalak erabakitzen dituen proiektuak (betiere, 12.000 euro baino gutxiago kostatzen direnak –BEZ barne–) idatzi eta horien lanak zuzentzeko.

2000ko urriaren 2an, aipatutako kontratu hori formalizatu zen; zehazki, 23.007 euroko zenbatekoa hitzartu zen, elkargo-baremoari jarraiki proiektuen ordainsariei zegokien gehigarriarekin (%30eko murrizketa ezarri zen). Urtebeteko kontratu-iraupena adostu zuten; baina, sei urtez luza zitekeen, gehienez ere. Beraz, kontratua 2006ko urriaren 1ean amaitu behar zen, berez.

Kontratu-xedea alderdi batean baino ez zen zehaztu; izan ere, 12.020 euro gainditzen ez zuten proiektuak idaztea eta horien lanak zuzentzea udalbatzak proiektu horiek egiteko zuen nahiaren mende gelditu ziren (Kontratazioei buruzko Foru

Legearen 11. artikulua). Bestalde, indarreko aldiari esleitutako 12.000 eurotik beherako proiektuen zenbatekoek negoziatutako prozeduraren mugak gainditu zituzten, Kontratazioei buruzko Foru Legearen 79. artikulua araberera.

Hasierako kontratua aldaketak egin ziren, eta esleitutako kopurua %50ean gainditu zen; gainera, igoera hori eragin zuten ustekabeko arrazoiak edo premia berriak ez ziren behar bezala justifikatu (Kontratazioei buruzko Foru Legearen 120. artikulua eta hurrengoak). Beraz, 2001eko otsailaren 1ean, aurreko kontratuko “lanaldia, zenbatekoa eta opor-egunen zehaztapena” atala aldatu egin zen; zehazki, zenbatekoa 36.060 eurora igo zen (BEZ barne), proiektuak idazteari eta lanak zuzentzeari buruzkoaz gain.

Kontratua 2001. urtetik dago indarrean, eta kontratistak lanaldi osoa betetzen du; beraz, Udalaren premia hori nahiko finkoa dela dirudi. Hori dela-eta, komeni da Udalak langile bat hartzea hirigintzako zerbitzu teknikoak betetzeko; langile hori plantillan nahiz mankomunitatean, beste toki-entitateekin elkarlanean, har liteke. Horrek guztiak, ordea, ez du kalterik eragin behar udalbatzako idazkariaren lanean; izan ere, pertsona horrek nahitazeko txosten juridikoak egin behar ditu, araudiak eskatzen duen bakoitzean.

Horri dagokionez, egungo egoera legeztatzea aholkatzen dugu; horrenbestez, Galar Zendeako Udalak jada iraungita dagoen kontratuaren eskaintza-deialdia egin beharko du, kontratazio-araudia zorrotzasunez betez. Horrez gain, hirigintzako zerbitzu teknikoak kontratatzea aztertu behar du, eta, horretarako, legezko edozein bide bali dezake.

- “Udal Plan Orokorren Berrikuspena” kontratua

2006ko irailaren 21ean udalbatzan hartutako erabakiari jarraiki, eskaera egin duen talde bakarri esleitu dio Udalak berrikuspen-kontratua.

Oharrak:

Kontratua NAO-n argitaratu zen, baina egunkarrietan ez zen iragarkirik jarri, 150.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuei hala dagokien arren. Eskaerak jaso zituen bulegoak ez zion bidali

kontratate-mahaiko idazkariari jasotako proposamenen ziurtagiria, jasotze-data eta -ordua zehaztuta. Halaber, espedientearen arabera, eskaintza egin zutenei ez zitzaien jakinarazi "c) Proposamen ekonomikoa" gutunazalaren irekiera-data, ez eta udalbatzak kontratua esleitu zuela ere. Eskaintzaileek dokumentuak aurkeztu zituzten; zehazki: arkitekto-taldearen NAN, ziurtagiriak, seguruak eta curriculumak. Gainerako "laguntzaileei" dagokienez, berriz, curriculumak soilik aurkeztu zituzten. Kontratazioei buruzko Foru Legearen 70.4. eta Administrazio Publikoetako Kontratu Legeen Araudi Orokorreko 80.5. artikulua eta administrazio-baldintza partikularren agiria.

- Zerbitzuak eta/edo laguntza emateko kontratuak

Jasotako informazioaren arabera, Galarreko Udalak sinatutako 10 kontratu zeuden indarrean 2005eko ekitaldian. Horiez gain, gutxienez beste bost kontratistak edo etxek aldi behingo zerbitzuak ematen zizkieten Udalarari, baina horiek ez zuten Udalarekiko etengabeko zerbitzu-loturaren inolako idatzizko kontraturik.

Gure iritziz, kontratazio-espediente guztietan, beharrezko diren agiriak bildu behar dira, bai eta esleipen-prozeduraren hasieratik kontratua amaitu arte eragingo dioten jarduerak zehaztu ere; horrez gain, kontratuak egitean, ezarrita dagoen araudia bete beharko da:

Lizitazio-deialdiak komunikabide egokietan argitaratzea, horien zenbatekoa dela-eta Kontrata-

zioen Foru Legeak hala egiteko eskatzen duenean.

Kontratuaren erabilitako esleipen-prozedura eta -modua espedientearen behar bezala justifikatzea. Dokumentu eta justifikazio-agiri guztiak aurkezten direla egiaztatzea eta horretara behartzea.

Baldintza-agirietan ezarritako klausulak betezea, kontratu-eskatzailen administrazio-dokumentuetan aurkitutako akatsak konpontzeko.

Aldian behin zenbait zerbitzutarako zuzenean esleitzen diren prestazioen kontratu-egoera legeztatzea eta formalizatzea. Horrez gain, laguntza-zerbitzuen kontratuarentako legedian araututako 6 urteko iraupenak errespetatzea (luzapenak barne).

V.5. INBERTSIOAK

Galarreko Udalak 1.561.648 euroko inbertsioak egin zituen 2005ean, eta horiek aurreikusitako betetze-mailaren %15,5 ordezkatu zuten, maila oso baxua. 1.371.744 euro ordaindu dira.

Aurreikusitako inbertsioen eta benetan egin direnen artean %84,5eko aldea egoteak, beraz, egin beharreko jardueren plangintza-dokumentu zehaztat aurrekontuak duen balioa indargabetzen du; zehazki, kapitulu horrek du indar handiena.

Beheko taulan betetze-maila adierazi da, kontusailen eta proiektuen arabera:

Kontusailen deskribapena	Aurreikuspena	Betebeharrak	%	Ordainketak	%	Saldoa
Seinaleztapena	78.200	309	0,4	309	100	0
Inbertsio-plana	60.000	0	0,0	0	0	0
Udala	2.092.067	838.581	40,1	652.941	78	185.640
Ibaia	824.647	510.290	61,9	510.290	100	0
Udalerria	3.058.527	6.196	0,2	6.196	100	0
Arlegi, mendi-bidea	60.000	0	0,0	0	0	0
Landareak ureztatzeko sistema	40.000	13.982	35,0	13.982	100	0
Argi publikoak	40.000	4.956	12,4	3.343	68	1.613
Gatz-lursailak (epaia betetzea)	511.000	45.562	8,9	45.562	100	0
Getzeko eta Ezkirotzeko sist. orok.	741.200	6.340	0,9	6.340	100	0
Getze-Berriain errepidea	180.304	20.860	11,6	20.860	100	0
Subitzako jauregia	400.000	0	0,0	0	0	0
Udal-haurtzaindegia	1.803.036	0	0,0	0	0	0
Udaletxe plaza	0	12.020	0,0	12.020	100	0
60. art.- Lursailak	9.888.980	1.459.096	0,1	1.271.844		187.252
Altzariak eta tresnak	12.000	584	4,9	584	100	0
Ordenagailua erostea	4.500	8.929	198	7.338	82	1.592
62. art.-	16.500	9.513	0,6	7.921		1.592
Informatikoak	2.000	1.568	78,4	508	32	1.060
Hirigintza eta besteak	0	21.950	0,0	21.950	100	0
64. art.-	2.000	23.518	11,8	22.458		1.060
Etxebizitzak sustatzea	150.000	69.521	46,3	69.521	100	0
68. art.-	150.000	69.521	0,5	69.521		0
Inbertsioak (6. kapit.), guztira	10.057.480	1.561.648	15,5	1.371.744	88	189.904

Zenbateko handiena zuten lanen betetze-urtea eta –prozedura, beheko taulan adierazi dira:

Kontratua	Esleipen-mota	Urtea	Lizitazioa	Esleipena
Udaletxea				2.294.867,95
Udaletxe-proiektua	Ideia-lehiaketa	2004	102.092	102.092
Obra-zuzendaritza	Ideia-lehiaketa	2004	78.109	78.109
Udaletxea	Lehiaketa	2005	2.154.834	1.910.125
Proiektua	Lehiaketa	2005	421.269	12.020
Ekipamendua	Lehiaketa	2005	249.852	192.523
Ibaia				974.119,34
Obra-zuzendaritza			53.940	43.100
Obra	Lehiaketa	2004	1.047.502	931.019
Kiroldegia				3.080.828,15
Proiektua	Lehiaketa	2006		UPEren %5 eta %2
Obrak	Lehiaketa	2006	3.431.148	3.080.828
Sist. orok.: Ezkirotz				727.412,09
Zuzentzeko laguntza	Lehiaketa	2005	19.970	19.970
Sist. orok.: Ezkirotz	Lehiaketa	2006	855.228	707.442
Getze-Beriain errepidea				820.600,00
Zuzentzeko laguntza	Lehiaketa	2005		29.800
Betetzea	Lehiaketa	2006		790.800

Lagina aztertu eta gero, honako ondorio hauek ateratu ditugu:

- Seinalaztapenak eta inbertsio-planak

Ez dira 2005. urtean egin.

60.000 euroko “inbertsio-planaren” kontusaila ekitaldi-hasieran oraindik erabaki gabeko obra txikiak egin ahal izateko aurreikusi zen.

- Udaletxea – Udaletxeko espedientea

Udalbatzak esleipen-mahaiak proposatutako enpresari esleitu zion obra, 2005eko martxoaren 3an. Obra hori egiteko, 1.910.125 euro bideratu ziren, eta 11 hilabeteko epea jarri zen; epe hori, ordea, 20 egun luzatu zen, 2006ko apirilaren 30era arte.

Udaletxe berriaren bidez, egungo premiei nahiz epe luzera sor daitezkeenei erantzun nahi zaie.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, horiek jaso zituen bulegoak ez zion bidali kontratatze-mahaiko idazkariari jasotako proposamenen ziurtagiria, jasotze-data eta –ordua zehaztuta. Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Araudi Orokorreko 80.5. artikulua.

2006ko abenduaren 31n, Udalak 13 ziurtagiri abonatu zituen; hau da, guztira, 1.896.001 € (805.047 € 2005ean eta 1.090.954 € 2006an).

Langileak eraikin berrira joan ziren 2006ko bigarren hamabostaldian, eta, orduetik, lokalak zerbitzu publikoaren eskura daude.

Obra-onarpena 2006ko urriaren 24an eman zen, aurreikusitako epea baino 6 hilabete geroago, hain zuzen; hilabete horietatik bi obran izandako aldaketek edo ustekabeko gertaerek arrazoitzen dituzte.

Obra-amaierako kitapenaren txostenean (2007ko martxoaren 19koa), obra-zuzendaritzak 1.990.074 euroko kitapena zehaztu zuen, aldaketak barne hartuta. Fiskalizazio-egunean, artean, kitapen-onarpena eta ordainketa egiteko zeuden.

- Kiroldegia

2005ean, frontoian jartzeko sare baten gastua baino ez zen kontatu; zehazki, 6.195 euro kostatu zen. Kiroldegia eraikitzeke esleipena 2006. urtean egin zen, eta obrak 2007an egin dituzte.

- Berdeguneetan ureztatze- eta landatze-sistema ezartzea

Hasierako aurrekontuaren kontusaila, 40.000 eurokoa, Galar Zendearen berdegune berriak jartzeko zen. Hainbat hartzekodunen faktura-zerrenda dago.

Horietatik lau faktura aztertu ziren; fakturak ez zeuden sinatuta, eta, horrez gain, ez zuten aurretiko onarpen- edo ordainketa-baimen formalik.

- Gatz-lursailak hartzea eta epaia betetzea

Lursailen jabetza kentzea dela-eta, balioespen bidezko indemnitazio-prozesua jarri zen martxan; horri lotuta, Udalak kasazio-errekurtso bat jarri zuen Auzitegi Gorenean, eta, beraz, oraindik, ebazpenaren zain dago.

Epaia sendoak eman dira. Hori dela-eta, Administrazioarekiko Auzietako Salaren 706/2005 autoa betetz, bi jaberri zegokien kopurua abonatu eta kontabilizatu zen, 2005ean; guztira, 45.561,71 € ordaindu ziren.

2005eko aurrekontuan, 511.000 € aurreikusitako ziren, gatz-lursailen jabetza kendu zitzaizkien jabeen bere garaian ordaindutako kopurua zela-eta sor zitezkeen indemnitazio-arriskuei erantzuteko. Ikus daitekeenez, 2006rako ez zen aurreikuspenik egin, eta, 2007an, berriz, 2005eko kopuru bera aurreikusitako da; dena den, dagoeneko ordaindu da emandako behin betiko epaiei dagokien zati bat.

Goian aipatuenez, 2006ko hasierako aurrekontuan ez zegoen kontusail hau; akats baten ondorioz, ordea, urte horretako aurrekontu-egoeretan agertzen da, beste lau inbertsioekin batera eta hasierako aurrekontuko kontusaila balitz bezala. Akats hori 2007ko martxoan egindako fiskalizazioari esker aurkitu zen, eta, ondorioz, 2006ko bost inbertsioen kontusailak doitu egin behar dira; zehazki, aurrekontutik kendu egingen dira (3.956.347 €-ko balioa zuten). Inbertsioetako bati lotuta, gainera, zenbait gastu zeuden; hori dela-eta, gastu horiek ere ezabatu egin beharko dituzte gastuen kontabilitate-dokumentuetatik, eta dagokien kontusailetan sartu beharko dira.

Ausazko prozedura horrek agerian utzi ditu aurrekontu- eta kontabilitate-alorreko barne-kontrolaren ahultasunak; ahultasun horiek, gainera, eragina dute aurrekontu-koherentzian eta -oinarrian.

- Getze – Beriain errepidea

2005eko ekitaldian, proiektua idazteari zegokion %70 abonatu zen; hau da, 20.860 €. Proiektua, zehazki, 2005eko azaroaren 3an egindako saioan onartu zuten udalbatzaren osoko bilkuran.

2006ko abuztuaren 7an, berriz, “SGUP-2 Getze – Beriain errepidea egiteko” proiektua esleitu zen, eta 790.800 euro bideratu ziren horretarako.

- Getze – Ezkirotz Sistema Orokorra

UPOn egindako aldaketak zirela-eta, proiektu-esleipena eta –ematea beranduago egin ziren; horren ondorioz, obrak atzeratu ziren, eta proiektua ez zen 2005eko ekitaldiko aurrekontuan sartu.

2006ko apirilaren 11n, “Ezkirotzeko SGUS-1 eta SGUS-2 eremuen gauzapena” esleitu zen, eta, horretarako, 707.442 euro eman ziren.

- Haurtzaindegia

Haurtzaindegia egitea 2003tik zegoen aurreikusita, baina, horri dagokionez, ez da ezer egin, ez 2005ean, ez 2006an. Ikus V.12 ataleko oharra.

- Subitzako jauregia

Udalak une oro interesa agertu du jauregi hori hartzeko, kultur gunetzat erabiltzeko edo, gutxienez, eraberritzeko; horregatik, jabetza kentzeko espediente bat ireki zuen, baina jabeak errekurtsioa jarri zion. Une honetan, jauregia erortzeko zorian dagoela esan dute, eta, beraz, Udalak jakinarazi duenez, beharrezko izapidetze-prozesuari ekinen dio jauregia bereganatzeko edo horren jabetza kentzeko.

- Etxebizitzak sustatzea

69.521 euroko gastuak kontabilizatu dira, bi konpentsazio-batzorderi egindako ordainketei dagokienak, hain zuzen:

– Espartzako Konpentsazio Batzordea. 8.236,88 € abonatu zitzaizkien urbanizazio-kuotak zirela-eta. Fakturretako bat bi aldiz ordaindu zen; beraz, egindako hutsaz ohartuta, aurrekontutik ezabatu eta kobratzeke dauden aurrekontuaz kanpoko kontuetan kontabilizatu da. Konpentsazio Batzordeak 2006ko ekitaldian sartu du berriz, akats baten ondorioz ordaindutako kopurua.

– Cordovillako Konpentsazio Batzordea. 60.068,97 € abonatu ziren; ordaindu behar zen kopurua baino 8.226,65 € gehiago. Beraz, aurreko kasuan bezala, kopuru hori aurrekontutik ezabatu egin da, eta aurrekontuaz kanpoko kontuetan kontabilizatu da, bi aldiz kobratu eta berriz sartzeko dagoen kopurutzat.

- Gomendioak:

Barne-kontrola indartzea (bereziki, kontabilitateko egoera-orrien eta aurrekontu-egoeren aldirian behingo berrikuspen sistematikoa); aurrekontu horiek egiten eta aurkezten hautemandako funtsezko akatsen jatorria aztertzea (hau da, informetika-sistemaren arazoak diren eta/edo langileek datuak erabiltzean sortutako arazoak diren); eta, azkenik, beharrezko neurriak hartzea akats horiek berriz gerta ez daitezen.

Udal-jarduera kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna erabilgarritzat balio duten aurrekontuak egitean, txosten tekniko garrantzitsuetan oinarritutako kalkulu zehatza egitea, eta, horrez gain, aurre-

kontuak eta betetze-epeak benetako aurreikuspenen arabera egokitzea.

Fase guztietan epeak betetzea edo betearaztea, eta, hala gertatzen ez bada, aurreikusitako zigorak ezartzea.

V.6. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Kontusaila	Aurreikuspena	Betebeharrak	%	Ordainketak	%	Saldoa
Transf. arruntak, guztira	728.550	647.309	89	382.478	59	264.831
Kapit. transf., guztira	1.278.000	494.911	39	286.624	58	208.287

Ohiko transferentziek eragindako betebeharrak 647.309 eurora iritsi ziren. Horien betetze-maila behin betiko kreditu guztien %89 izan zen, 2005ean, eta ordainketak aitortutako betebeharren %59 izan ziren.

Gastu horietan, besteak beste, honako hauek izan ziren: kontzejuentzako dirulaguntzak (emandakoaren %52, gutxi gorabehera); kultura-, kirol-eta ongintza-jardueretarako dirulaguntzak; eta dirulaguntza bereziak.

Kapital-transferentziek eragindako betebeharrak, berriz, 494.411,12 eurora iritsi ziren, eta aurrekontuaren %38,73 bete zen. Hain zuzen, betetze-maila txiki hori, aurrekontuetan sartu arren, kontzejuetan egin ez ziren edo atzerapenarekin egiten ari diren lanen ondorio izan zen.

- “Ohiko transferentziak” izeneko 4. kapituluaren besteak beste, beste ekonomia-kapitulu batzuetan kontabilizatu behar ziren zenbait gastu sartu ziren. Beraz, udako ikastaroek eta kirol-ikastaroek nahiz igerileku-mantenuak eragindako gastuak aurrekontu-gastuetako 2. kapituluaren sartu behar ziren.

- Kontzejuentzako dirulaguntzak

Ekitaldi horretan, 328.759 € onartu ziren kontusail horretarako. Hala eta guztiz ere, Udalak egindako kitapenaren arabera, 488.463 euro ordaindu ziren azkenean; gehigarri hori, hain zuzen,

2005ean kontzejuei banatutako EIOZ eta zirkulazio zergei zegokien. Hau da, kontabilizatuta dagoena baino kopuru handiagoa (157.704 euroko kopuru garbia, hain zuzen) aplikatzeke dago.

Gastuak aurrekontuen urterokotasun-printzipioa errespetatu gabe kontabilizatzeko joera 2004. urtean ere hauteman zen.

Kontabilizatzeari dagokionez, hona hemen gure aholkua:

Galarreko Udalak eta Zendeako kontzejuak indarrean duten hitzarmenaren arabera, kontzejuentzako transferentziak dagokien aurrekontuaren kontura kontabilizatuko dira, betiere aurrekontuaren urterokotasun-printzipioa errespetatuta.

Gastuak, berriz, horien ekonomia-atalaren arabera.

V.7. ZERGAK

2005ean, 3.194.437 euroko zergak sorrarazi ziren, eta aurreikusitakoaren %119ko betetze-maila izan zuten. Horietatik, %70 kobratu da: zuzeneko zergen %94,1, eta zeharkakoen %59,6; betetze-mailari dagokionez, berriz, aurreko ekitaldian baino %10,6 eta %11,4 handiagoak izan ziren, hurrenez hurren.

2005ean aitortutako zergak, honako zerga mota hauei dagozkie:

Deskribapena	Aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Eskubideen %	Kobrantsak	Kobrantsen %	Saldoa
Landa-kontribuzioa	4.000	3.235	80,9	3.113	96,2	122
Hiri-lurren kontribuzioa	297.056	351.649	118,4	334.968	95,3	16.681
Trak. mekan. ibilgailuak	160.000	196.894	123,1	184.226	93,6	12.668
Hiri-lurren hazkundera	48.000	0	0,0	0	0,0	0
Ekonomia-jard. gaineko zerga	350.000	361.612	103,3	337.267	93,3	24.344
Zuzenekoak (1.kap), guztira	859.056	913.390	106,3	859.575	94,1	53.815
Eraik., instal., obrak	1.825.280	2.281.047	125,0	1.360.625	59,6	920.423
Zeharkakoak (2. kap.) guztira	1.825.280	2.281.047	125,0	1.360.625	59,6	920.423
Zergak, guztira	2.684.336	3.194.437	119,0	2.220.200	70,0	974.238

2005. urtean aplikatutako karga-tasak ez dira aldatu aurreko urteetan ezarritakoekiko; hain zuzen, tasa horiek 2000 eta 2006 artean izandako bilakaera hurrengo taulan adierazi da:

Udal-zergetan karga-tasek izan duten bilakaera		
	2000	2001-2006
Hiri-lurraren kontribuzioa	%0,13	%0,10
Landa-kontribuzioa	%0,10	%0,10
Ekonomia-jardueren gaineko zergak	1,40	1,40
Eraikuntzen eta instalazioen gaineko zerga	%5,00	%5,00
Gainbalio-zerga	%8,00	%8,00

Azterketa egin eta gero, honako ondorioak atera eta aholku garrantzitsu hauek eman nahi ditugu:

- Hiri-lurraren kontribuzioa, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga eta zirkulazioaren gaineko zerga

Gomendioak:

Alkatetzaren ebazpen bidez igorri beharreko aldizkako zergen zerrenda-multzoa formalki onartzea, eta zerga bakoitzaren arabera dagokion zenbatekoa zehaztea, banan-banan. Ebazpenean, halaber, jendaurrean jartzea, zergadunei eta bankuei jakinarazpenak egitea, edota beste jarraibide garrantzitsu batzuk ematea agindu liteke.

Zerga horiek igortzeko data aurreratzea, eta helbideratzea sustatzea, kobratze-kudeaketa ekitaldian bertan egitea errazteko.

Eskubideak kontabilizatzea, sortzapen-irizpidean oinarrituta, eta, gero, egin behar diren balioagabetzeak, kobrantzak eta beste egintzak erregistratzea.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren eta zirkulazio-zergaren saldoak garbitzea, eta gero, kobraezinak direnak onartu eta gainerakoak agenzia exekutiboari pasatzea.

- Gainbalioak – Hiri-lurren balioa haztearen gaineko zerga

1999tik, ez da gainbalio-zerga bete eta kitatu.

2006an, Udalak atzeratutako gainbalioen kitapena egin zuen, 187.040 euroko balioa zuena, hain zuzen; kopuru hori 300 bat kitapeni zegokien (gehienak 2002-2006 urteetan sortutakoak).

Bai gastuei dagokionez, bai diru-sarrerei dagokionez, ordaindutakoa eta kobratutakoa soilik kontabilizatzen da; beraz, ez dago aurreko ekitaldietan zerga horri dagokionez kobratu behar zenari buruzko kontabilitate-daturik.

Erabilitako sistemarekin eskubideak galtzeko arriskua dago, bai eska daitekeen guztiaren kobrantza ez bermatzeagatik, bai aldi behingo preskripzioengatik. Horri dagokionez, kopuru txiki bi preskripzio egiaztatu ahal izan dira.

Bestalde, ez da errespetatu aurrekontuaren urterokotasun-printzipioa.

Gomendioak: mekanismo eta prozedura bereziak garatzea eta ezartzea, hainbat zeregin behar bezala betetzen direla bermatzeko; hau da, zerga-kitapenak egiteko datu garrantzitsuak behar bezala hartzen eta gordetzen direla, aitortutako eskubideak jendeari bere garaian jakinarazten zaizkiola, eskubideak egoki gordetzen eta/edo kontabilizatzen direla, eta horien kobratzea eta kontabilitate-erregiratzea eraginkortasunez egiten dela bermatzeko.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)

“Zeharkako zergak” 2. kapituluaren zerga-mota bakarra sartu da: “Eraikuntza, instalazio eta obrak (EIOZ)”; horri dagokionez, 2.281.047 euroko eskubideak kitatu dira, Udaleko diru-sarreren aurrekontu guztiaren %42,08, hain zuzen. 2005ean, aurreikusitako betetze-mailaren %125 bete zen.

Bestalde, gogoan izan behar da zerga-bilketa hori ez dela egonkorra, eraikuntza-jardueraren mendean baitago; gainera, duen garrantzia dela-eta, zuzentasunez aztertu behar dira horren bilakera-aukerak, erakundearen gastu eta diru-sarrera arruntaren egitura zehaztean.

V.8. TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

2005ean sortutako tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk zirela-eta, 216.026 euro lortu ziren; aurreikusitako betetze-mailari dagokionez, %109 bete zen.

Hona hemen, 2005eko ekitaldian izan ziren Udaleko tasen eta prezio publikoen kontusailak:

Deskribapena	Aurreikuspena	Eskubideak	%	Kobrantzak	%	Saldoa
Ikastaroen kuotak eta antzekoak	4.000	15.761	394	15.761	100	0
Kirol-instalazioak	40.000	51.370	128	51.370	100	0
Eskola-garraioa	2.000	3.597	180	3.391	94	206
Irekitze-lizentziak	70.000	50.097	72	48.714	97	1.382
Izapidetzeak, ebazteak eta antzekoak	30.000	66.312	221	60.543	91	5.769
Telefonia-kanona eta hegaldatze-tasa	6.000	12.143	202	12.143	100	0
Frankoandia parke eolikoa	26.000	0	0	0	0	0
Zirkulazio-ordenak (pasabideak)	100	0	0	0	0	0
Zirkulazio-isunak eta beste batzuk	5.000	63	1	63	100	0
Premiamendu-errekargua	8.000	3.655	46	3.655	100	0
Bestelako diru-sarrerak	7.000	13.029	186	2.131	16	10.898
Tasak eta bestelako diru-sarrerak (3. kap.), guztira	198.100	216.026	109	197.771	92	18.255

- Kirol-instalazioak - Kiroldegiak

Arduradunek azaldu digutenez, kiroldegiko kostuei eta tasei buruzko azken azterketa 2000. urtean egin zen; garai hartan, tasak edo diru-sarrerak kostu guztiaren %45 ziren.

2005ean, kiroldegiari dagokionez kalkulaturako zuzeneko gastu guztia 173.901 eurokoa izan zen; kalkulaturako diru-sarrerak, ostera, 51.369 euro izan ziren, hau da, gastuen %30 baino ez.

Egindako gastuak urteko bi kitapenen bidez justifikatu dira; motaren arabera banaturako diru-sarrerak, berriz, behin baino ez dira kontabilizatzen, urte amaieran, hain zuzen.

- Frankoandia parke eolikoa

Udalak ez zituen kontabilizatu 2005ean kanon honen eraginez sortutako diru-sarrerak: 25.098 €, zehazki; hori dela-eta, hurrengo ekitaldian kitatu zituen, 2006koarekin batera.

Gomendioak:

Zerbitzu publiko guztien kostu-azterketak eguneratzea, eta, hala badagokio, prezio publikoak (bereziki, kirol-tarifak) benetako kostuen arabera doitzea, proportzio egokian.

Kiroldegiko diru-sarrerak aldian behin kontabilizatzea.

Sortutako diru-sarrerak dagokien ekitaldian sartzea, eta BEZa aurrekontuaz kanpoko bere kontuan sartzea.

V.9. JASOTAKO OHIKO TRANSFERENTZIAK ETA KAPITAL TRANSFERENTZIAK

2005. urtean, Galarreko Udalean transferentzien bidez jasotako diru-sarrerak honako betetze-maila hau izan zuten:

Deskribapena	Aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	%	Kobrantzak	%	Saldoa
Estatuarenak	1.100	2.642	240	2.642	100	0
Hautesle-errola eta besteak	100	25	25	25	100	0
Bake-epaitegia	900	530	59	530	100	0
Kultur jarduerak	3.000	106	4	106	100	0
Bost urteko montepioak	70.000	17.313	25	17.313	100	0
Aholkularitza	6.500	6.061	93	6.061	100	0
Udal-garraioa	9.000	0	0	0	0	0
Korporatib. laguntza	9.000	15.900	177	15.900	100	0
EjZren hobaria itzultzea	0	50.137	0	50.137	100	0
NG: enplegu babestua	0	658	0	658	100	0
Tokiko ogasun-funtsa	230.000	294.332	128	294.332	100	0
Ohiko transferentziak (4. kap.), guztira	329.600	387.703	117	387.703	100	0
NG, udaletxe-eraikuntza	200.000	0	0	0	0	0
NG, Olaz kaleko zoladura	0	57.740	0	57.740	100	0
NG, haurtzaindegirako dirulaguntza	1.803.036	0	0	0	0	0
NG, ibaiari lotutako dirulaguntza	420.708	387.256	92	387.256	100	0
Hirigintza-hitzarmenak	8.000	27.597	345	27.597	100	0
Homidura-kanonak	400.000	278.778	70	0	0	278.778
Hirigintza-aprobetxamenduak	31.000	0	0	0	0	0
Kapital-transferentziak (7. kap.), guztira	2.862.744	751.371	26	472.593	63	278.778
4. kap. eta 7. kap., guztira	3.192.344	1.139.074	36	860.296	76	278.778

2005ean, kontabilizatutako ohiko transferentziak 387.703 eurora iritsi ziren; hau da, aurreikusitako betetze-mailaren %117 izan ziren. Betetako ohiko transferentzia horien %76 Ogasun-funtsari zegokion.

Bestalde, sortutako kapital-transferentzien kopurua 751.371 eurokoa izan zen, eta horren betetze-maila nahiko baxua: aurreikusitako diru-sarreraren %26.

Horrez gain, nabarmendu behar da Nafarroako Gobernutik jasotzea espero zuten kopurua ez zutela jaso; zehazki, udaletxea eta haurtzaindegia eraikitzeko kontusailen kopurua.

- Hornidura-kanonak

Diru-sarrera hori, hain zuzen, udal-titulartasuneko lursail batean kirol- eta dibertimendu-eraikin bat eraikitzeko 2001. urtean eman zen obra-emakidaren kanonari dagokio.

Obra publikoaren emakida-kontratua lehiaketa publikoaren bidez egin zen, arriskuaren eta zoria-
ren eraginpean; 75 urteko iraupena zuen, eta, horrez gain, 2002ko urtarriletik aurrera urtero ordaindu beharreko kanon bat ezarri zioten. Bestalde, baldintza-agirian eta kontratuan ezartzen duenez, kontratuak hamabi hileko kuotak zituen, eta KPIaren arabera eguneratuko zen.

Udalak kanona faktura baten bidez igortzen du, kitapen baten moduan, eta ez du errespetatzen hitzartutako hileko aldizkakotasuna.

2005ean kitatutako diru-sarrerak oraindik kobratzeko zeuden. Bestalde, 2006ko bigarren hiruhilekoko hileko kuotak, 144.000 €, gutxi gora-behera, likidatzeko eta kobratzeko zeuden 2007ko martxoaren 13an.

Aurrekontuaren kontabilitateari dagokionez, kanonaren diru-sarrerak 55. artikuluan –Emakiden produktuak eta aprobetxamendu bereziak– sartu behar dira gure iritziz, eta ez 7. kapituluan –Kapital transferentziak eta kapitalaren beste diru-sarrera batzuk–.

- Hirigintza-hitzarmenak

Segidan, hirigintza-hitzarmenak aztertuko ditugu, aurrekontuaren eta finantzaren ikuspegitik. Hitzarmenen hirigintza-kudeaketari dagokionez, ikusi V.12. ataleko azalpenak.

– Arlegiko EU-2 egikaritze-unitatearen borondatezko birpartzelatzea.

Eragindako lursailaren borondatezko birpartzelatearen ondorioz, Udalari %10eko lagapena egin behar zaio, doan; dena den, lagapen horri zegokion zatia gutxieneko lursaila baino txikiagoa zenez,

ezin zen lursail horren lagapen fisikoa egin. Hori dela-eta, lur-zati horren balioa dirutan ordaintzea adostu zuten.

Arlegiko Kontzejuak alegazioak aurkeztu eta lursailaren zati baten titulartasuna eskatu zuen; horrez gain, aurka egin zion lursailaren borondatezko birpartzelatzea jabe bakarra balu bezala egiteari. 2006ko uztailaren 5ean, Udalak erabaki zuen 397 m²-ko azaleraren titulartasuna dudazkotzat hartzea eta, aldi berean, borondatezko birpartzelatearen proiektua behin betiko onartzea; halaber, gaineratu zuen sustatzaileak hilabeteko epea zuela 397 m²-ko lursailaren dudazko titulartasuna adierazten zuten Testu Bategina aurkezteko.

27.457 euroko balioa zuten eskubideak –lursail osoari zegokion aprobetxamenduaren lagapena zela-eta– 2005eko ekainaren 30eko banku-txekearen bidez kobratu ziren. Kobrantza hori, zehazki, hitzarmenaren hasierako onarpena egin zen hil berean (2005ean) egin zen, nahiz eta Udalak ez zuen behin betiko onartu 2006ko uztailean arte. Fiskalizazioa egin zen unean, birpartzelatze-proiektua geldirik zegoen. Bestalde, azken sustatzaileak beste pertsona juridiko bat izan da, eta ez hitzarmena sinatu zuen eta jabetza erosi zaion partikularra; sustatzaile horrek, gainera, ezin izan du birpartzelatze-proiektua erregistratu, dudazko titulartasuna dela-eta.

– Beste banaketa-area bat (BA–7)

Hitzarmenaren hasierako onarpena 2004ko abenduaren 23an egin zen; 2005eko martxoaren 17an, berriz, Gobernu Batzarrak behin betiko onartu zuen.

Noain-Ezkirotz poligonoa handitu eta beste banaketa-area bat (BA-7) sortu zuten. Egikaritze-unitateak 75.524,66 UAS-eko aprobetxamendua du, eta, kopuru horretatik 7.552,47ko doako lagapena egin behar dio administrazioari, derrigorrean. Galar Zendeako Udalari B, E1, E2 eta E3 lursailak esleitu zitzaizkion, 7.093 UAS hartzen dutenak.

Beraz, 459,46 UAS gelditu dira gauzatu gabe, eta, ondorioz, beharrezkoa da hori dirutan ordaintzea; izan ere, eremu horretan ez dago aprobetxamendu hori jartzeko lursail egokirik, jabetza indibisorik sortu gabe. Horiek, zehazki, 90.793,89 euroko balioa dute.

Interesatuei hitzarmen-onarpenaren berri emateko egin zen jakinarazpenean, ez zen kobrantza-epetik zehaztu; bestalde, eragiketa hori ez zen kontabilitateari dagokionez erregistratu.

Fiskalizazioa egin zenean, 90.793,89 euro kobratzeke zeudela egiaztatu zen, bai eta hori ordaintzeko eskaera egiteke zegoela ere; kopuru

hori, hain zuzen, 2007ko martxoaren 9an sartu dute.

– Talluntxe industrialdeko 1. lursaila (Ezkirutz)

Plangintzarako eta kudeaketarako hirigintza-hitzarmen mistoaren hasierako onarpena 2004ko abenduaren 16ko udalbatzan egin zen.

Xedea: hitzarmena sinatu zuen merkataritza-entitateak 1. lursailari esleitutako eraikigarritasuna handitu zuen, eta, beraz, aparkaleku publikoen kopurua ere handitu egin zen. Horren orde, entitate horrek agindu zuen antzeko ezaugarriak zituen lursail batean eraikina eraikiko zuela, eta, gainera, estetikari dagokionez, kalitate handikoa; horrez gain, udal-planaren aldaketari esker lortutako irabazizko aprobetxamendu gehigarriaren %15 Udalari lagatzeko konpromisoa hartu zuen. Interesatuari bidalitako jakinarazpenean, ez zen zehaztu lagapena diruz ordaintzeko inolako eperik.

Gerora, Udalak azaldu zuen hasiera batean hitzartutako eraikigarritasunaren gehitzea handiagoa zela plangintza aldatzeko zegokion espedienteen onartutakoa baino, eta, beraz, bidezkotzat jo zuen hitzarmeneko eraikigarritasuna eta betebeharrak doitzea. Aldeek Hirigintza-hitzarmenaren aldaketa sinatu zuten 2006ko abenduaren 21ean, eta, ondorioz, aprobetxamendua txikitu eta lagapenaren balioa gutxitu ziren.

Kalkulatutako lagapenaren azken balioa 39.348 eurokoa izan zen (hasierakoa, 68.640 eurokoa izan zen); horri dagokionez, fiskalizazioa egin zen datan, artean dirua sartzeke zegoen.

– S-4 egikaritze-unitatea: Getze

Hitzarmenaren hasierako onarpena Gobernu Batzarrak egin zuen 2005eko maiatzaren 19an; behin betiko onarpena, berriz, 2005eko abuztuaren 11n izan zen.

Xedea: jabeek ezin zuten S-4 egikaritze-unitatearen ondoriozko eskubideen %90 gauzatu, unitatea defizitarioa baitzen. Halaber, ezin zen Udalari zegokion gainerako %10a (derrigorrez eta doan egindako lagapenaren ondorioa) gauzatu, arrazoi bera dela-eta. Beraz, ordaina dirutan eman zen.

Jabeek agindu zuten Udalari 28.379,96 € ordainduko zizkiotela, hirigintza-kuota eta derrigorezko lagapena direla-eta. Udalak, bestalde, jabe-

ei 21.242,90 € (= 202,99 UAS, 104,65 eurotan) ordaintzeko konpromiso hartu zuen, S-4 egikaritze-unitateko UAS defizitarioak zirela-eta.

Zenbateko garbiaren ordainketa 2006ko otsailaren 15ean egin zen, baina, berez, 2005ean egin behar zen; izan ere, hitzarmena eta birpartzelatze-proiektua 2005eko abuztuaren 11n onartu zituen Gobernu Batzarrak. Eskubide-sortzapena, behintzat, 2005. urtean kontabilizatu behar zen.

Kontabilitatean, 2006ko eragiketa soilik dago erregistratuta, 7.137,06 euroko kopuru garbia, zehazki; hau da, hitzarmenaren arabera Udalak kobratu beharko zuenaren eta ordaindu beharko zuenaren arteko aldea. Bestalde, kontabilitatean ez ziren sartu, bere osotasunean, aurrez aipatutako ekonomia-egintza horiek, sinatutako hitzarmenaren ondorioz sortutakoak, hain zuzen.

Gomendioak:

• *Igortzeak eta kitapenak egiteko, hornidurakanonari dagokionez pleguak ezartzen duen aldizkakotasuna errespetatzea.*

• *Sortutako diru-sarrerak dagokien ekitaldian sartzea, eta sortzapena bere ekonomia-atalari dagokion kontusailean erregistratzea.*

• *Eskubide guztiak behar bezala erregistratzen direla egiaztatzea, kobrantza behar bezala egiten dela bermatu ahal izateko. Jabetzan hartzen diren ondare guztiak inbentarioan erregistratzea, eta, era berean, Udalaren lurzoru-ondarean, horri dagozkionak sartzea. Hirigintza-aprobetxamenduetan diruaren ordainetan lagatzeko eragiketaren finantza- eta kontabilitate-jarraipena egitea.*

• *Udalaren aldeko eskubideak direla-eta hirugarrenei egiten zaizkien jakinarazpen guztietan ordainketa-epea aipatzea eta erregistratzea, kobrantza egokia edo erreklamazioa bermatzeko; horrela, gainera, eskubideak behin-behinean galtzeko arriskua ezabatuko da. Titulartasun-aldaketa dela-eta, birpartzelatzea onartu aurreko aldietan beste entitate batek hartzean, hitzarmenean bertan zehaztutako subrogazio-baldintzak errespetatu behar dira.*

V.10. ONDAREAREN DIRU-SARRERAK ETA HERRI-ONDASUNEN APROBETXAMENDUKOAK

5. kapituluaren deskripzioa	Aurreikuspena	Eskubideak	%	Kobrantzak	%	Saldoa
Banketxe-kontuen interesak	100.000	12.832	12,83	12.832	100,00	0,00
Banaketa-kontuen interesak	2.000	0	0,00	0	0,00	0,00
Ondarezko diru-sarrerak, guztira	102.000	12.832	%12,58	12.832	100,00	0,00

Udalak kontusail berezi bat erabiltzen du, diru-sarrerak kontu korronteetako eta gordailu-korronteetako interesen arabera jasotzeko. Galar Zendeako Udalean, ez dago herri-ondasunen aprobeixamenduek eragindako diru-sarrerarik, horiek kontzejuei soilik baitagozkie.

Entitateak 12.832 euroko diru-sarrerak kontabilizatu zituen, interesek eraginda; beraz, betetze-mailaren ehunekoa txikia zen: aurreikusitako 100.000 euroko kopuruaren %12,75 baino ez. Aurreikuspen hori, zehazki, 2004ko eta 2003ko betetze-mailak oinarri hartuta egin zen (91.311 € eta 122.587 €, hurrenez hurren).

6. kapituluaren deskripzioa	Aurreikuspena	Eskubideak	%	Kobrantzak	%	Saldoa
Lursailak besterentzea	6.737.482	858.921	12,75	12.156	1,42	846.765
Inbert. erreal. besterentzea, guztira	6.737.482	858.921	12,75	12.156	1,42	846.765

2005ean sortutako zenbatekoa 858.921 eurora iritsi zen, guztira; kopuru horrek, ordea, betetze-maila oso txikia adierazten du: aurreikusitakoaren %12,75, hain zuzen.

Zehazki, bi eragiketaren ondorio izan zen: bata, "Cordovillako ordokia" izeneko lursailen bost lursail-zati "VINSA" enpresari saltzea, BOE etxeak eraikitzeke (846.764,59 euroko balioa), eta, bestea, trukatzeko zehatz bateko balioaren aldea (12.156,34 €).

2005eko abenduaren 31n, trukearen 12.156 euroko zenbatekoa soilik zegoen kobratuta; "VINSA" enpresari dagokionez, bestalde, 2005eko kontabilitatean zorduntzat agertzen zen, 2006ko urtarilean egin baitzuen ordainketa.

- Cordovillako ordokian dauden lursailak "VINSA" enpresari besterentzea, BOE etxeak eraikitzeke

Salmenta-hitzarmena 2005eko irailaren 20an sinatu zen; hitzarmen horretan Cordovilla Ordokiko bost lursail-zati saltzea hitzartu zen, Cordovillako S-4 egikaritze-unitatean zeudenak, hain zuzen.

"VINSA" enpresarekin hitzartutako salmenta-prezioa 652.414,10 eurokoa da, dagokion BEZa gehituta; hitzarmen hori salerosketa-eskritura sinatzean burutuko da.

Halaber, VINSAk Udalari 92.835,02 € ordaintzea hitzartu zen, urbanizazio-kuotei dagokiena, hain zuzen; izan ere, kuota horiek Udalak ordaintzen zituen ordura arte, eta lursailen deskripzioan adierazitako kargen baitan daude sartuta. Orubearen urbanizazioarekin lotutako gaiak direla-eta sor daitezkeen gastu guztiak (deskripzioan zenbatutakoak) erosleak ordaindu behar ditu.

2005eko ekitaldiari zegozkion interesek eragindako diru-sarrera gehigarriak 35.345 eurora iritsi ziren berez (gure iritziz): 20.015 € Errenta Finkoko kontuari zegozkionak eta 15.329 € DinerPlus kontuari zegozkionak. Aldea funtsen etekinak kontabilizatzean erabilitako irizpideak eragin zuen; izan ere, udalak 2006. urtean sartu zituen 2004ko urriaren 1etik 2006ko otsailera bitarteko aldiandako FIAM finantza-aktiboei zegozkien diru-sarrera guztiak.

V.11. INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Aurrez aipatu den kontabilizatutako zenbatekoa 846.764,59 eurokoa da, eta, bere baitan, honako hauek daude sartuta:

652.414,10 €, lursailak transmititzearen kopurua
89.964,23 €, urbanizazio-kuotak
104.386,25 €, BEZ

Besterendutako ondasunak ez dira agertzen udalaren lurzoru-ondarean, ez eta balantzaren inbentarioan eta ibilgetuan ere. Irteerako kontabilitate-erregistroaren zenbatekoa balio negatiboekin agertzen da inbentarioan, eta, noski, horrek ekitaldiko aurrekontu-emaizari eta balantzeari eragiten dio. Ikusi V.13. ataleko oharra.

Urbanizazio-kuotak

89.964,23 euroko zenbatekoa VINSAk urbanizazio-kuotengatik ordaindutako kopuruari dagokio.

Udalak 174.953,80 euroko faktura aurkeztu zion VINSARI 2006ko urtarrilaren 10ean, urbanizazio-gastuak zirela-eta. Era berean, Udalak urbanizazioaz arduratzen den Kontentsazio Batzordearen fakturak jaso zituen 2004. eta 2005. urteetan, urbanizazio-gastuak zirela-eta; guztira, 176.970,27 eurora iritsi ziren faktura horiek.

Udalak VINSARI fakturatutakoaren eta kobratutakoaren artean 84.989,57 euroko aldea dago (hau da, 174.953,80 € – 89.964,23 €). Baina, kontabilitateari dagokionez, Udalak ez zituen erregistratu 2006an alde horrekin lotutako eragiketak.

Kontua da Udala ez dagoela ados Kontentsazio Batzordeak fakturatutako kopuruarekin, kargatu dizkieten urbanizazio-gastuak gehiegizkoak iruditzen baitzaizkio.

VINSAk, bestalde, 89.964,23 € baino ez zituen ordainduta, 2007ko maiatzaren 25ean. Hitzarmeneko kopuruarekin duen aldea Udalari dagozkion 62,71 UASen urbanizazio-gastuekin dago lotuta, batez ere.

Udalak adierazi digunez, jarduerak hasi ditu Kontentsazio Batzordeak igorritako fakturen justifikazioa argitzeko. Baldin eta fakturatutako zenbatekoak berresten badira, hitzarmenean zehaztutako kopurua benetako gastuak eta VINSAk ordaindutako zenbatekoa baino txikiagoa izanen da; beraz, aldea bere gain nork hartzen duen arabera, kontingentzia gertatuko da.

BEZean eraginen dituen ondorioak

Aurrez aipatu bezala, Udalak BEZaren 104.386,25 euro sartu ditu 6. kapituluko aurrekontuko diru-sarreraren baitan. Kopuru hori BEZaren aurrekontuaz kanpoko kontu egokian jaso behar zen, eta ez aurrekontuko diru-sarreraren atalean. Beraz, BEZA (sortzapenekoa eta kengarria) duten fakturak ez dira jaso kontabilitateari dagokionez.

Kontabilitate eta aurrekontu egokietan ez sartzeari aurrekontu-emaizari eta ibilgetuari eragiten dio, aipatutako zenbatekoak desitxuratu egiten baititu.

Udalak 2005ean sortutako diru-sarreratzat kontabilizatu zituen; baina, faktura 2006ko urtarrilaren 10ekoa da, eta BEZaren aitortpena 2007ko urtarrilaren 18an egin da.

Gomendioak:

Urbanizazio-gastuei dagokien kontabilitate-jarraipena eta -kontrola indartzea, eta gastu horietatik behar bezala berreskuratzen dela bermatzea.

Eragiketak dagokien ekitaldian eta kontuetan sartzeari, eragiketa horien ekonomia-atala kontuan hartuta.

BEZak eragindako zenbatekoak dagokien kontuetan kontabilizatzeari.

V.12. HIRIGINTZA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolamenduren Batzordeak, 2000ko maiatzaren 12ko erabakiari jarraiki (gerora, 2000ko ekainaren 29an batzorde berak hartutako erabakiak aldatua) behin betiko onartu zuen Galar Zendeako Udalaren Udal Plan Orokorra –UPO– (30. zenbakiko NAO, 2001eko martxoaren 7koa). Udal Planaren araudia 2001eko azaroaren 23an argitaratu zen, oso-osorik, NAOren 142. zenbakian.

UPOn ezartzen denaren arabera, Zendea osatzen duten 8 herri-guneetan 1.308 etxe eraikiko dira, guztira, eta horietatik 186 BOEak izango dira. Aurreikuspen horiek 8 urteko aldiari egiten diote erreferentzia.

UPOn bi aldaketa nabarmen gertatu dira, egiturari dagokionez:

– Batetik, lurzoru urbanizagarrien sektoreetan hasiera batean aurreikusitakoa baino etxebizitza gehiago egin ahal izateko, betiere Udal Planean zehaztutako bolumenak mantentzen eta 300 m²-ko batez besteko partzelatzea errespetatzen den heinean. Aldaketa hori urtarrilaren 29ko 120/2002 Foru Aginduaren bidez onartu zuten (NAO 30. zk., 2002ko martxoaren 8koa) eta 51. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, 2002ko apirilaren 26an.

– Eta bestetik, Ezkirotz inguruko Udal Plana aldatzea, Ezkirotzeko saihebidetza eraiki ahal izateko; eraikitze-lan hori “Nasuinsa SA” enpresak sustatu zuen, eta urtarrilaren 3ko 4/2006 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zuten.

2006ko irailaren 21ean, UPOren Berrikuspena egiten laguntzeko kontratu-lesleipena onartu zuen Udalak.

Emandako datuen arabera (2007ko otsailaren 15ari dagozkionak), honako hau izan da UPOren betetze-maila:

Herri-gunea	UPOn agertzen den etxebizitza-kopurua			Betetze-maila					
	Libreak	BOEak/Tasatuak	Guztira	Eskatuak		Egiten		Egindakoak	
				Libreak	BOEak	Libreak	BOEak	Libreak	BOEak
Arlegi	47	4	51			1		6	
Cordovilla	374	126	500	46	68	83			
Espartza	95	40	135	10		9		9	
Ezkirotz	411	168	579			4		17	
Galar	56	8	64	2		3		4	
Olatz	24		24					1	
Getze	100	20	120					2	
Subitza	102	6	108			12		18	
Guztira	1.209	372	1581	58	68	112		69	
l. aurreikus.	1.122	186	1308						

2001ean argitaratutako UPOk honako kopuru hauek zituen 2007ko urte hasieran:

– Azkenean, 1.581 etxebizitza egitea aurreikusitakoa zen; horietatik 372 BOEak.

– Aurreikusitako 1.209 etxebizitza libreetatik, 69 zeuden eraikita, eta 112 eraikitzen ari ziren.

– 2001-2006 aldian, ez zen BOErik eraiki.

Udaleko hirigintza-jarduera aztertu eta gero, hona hemen ateratako ondorio nagusiak:

• Hitzarmenak: a) Arlegiko 2. EU borondatez birpartzelatzea; b) BA-7, banaketa-area berria: Noingo poligonoa handitzea; c) Ezkirotzeko Talluntxe industrialdearen 1. lursaila; d) Getzeko S-4 unitatea birpartzelatzeko batzordea.

Aipatutako hitzarmenak V.7. puntuan aztertu dira, horiek aurrekontuetan eta kontuetan izandako finantza-eraginaren ikuspegia kontuan hartuta.

Udalak hirigintza-hitzarmenak erregistratu eta horien jarraipena egiten du, gainerako hirigintza-eta administrazio-espedituekin bezala; horretarako, excel orriaz baliatzen da. Fitxategi berezi bat dago, Udal Idazkaritzaren zaintzapean, eta, bertan, hitzarmen bakoitzaren kopia bana gordetzen da; bestalde, hitzarmen originala dagokion espedituean jasotzen da.

• Galar Zendeako Udalaren eta Ezkirotzeko S-2 sektoreko lursailaren jabe den merkataritza-sozietatearen arteko hitzarmena

Hitzarmenaren jatorria lursail horiek Udaleko Plan Orokorrean zehaztuta dituzten erabileren egokitasun falta da; izan ere, indarrean dagoen legediari jarraiki, lursail horiek aire-zortasunak eta –mugak dituzten lursailtzat egokitu behar ziren. UPOa izapidetzeko eta onartzeko unean, zortasun eta muga horiek jada legean zehaztuta zeuden;

horrez gain, legeak behartu egiten zuen Hegazkingintzako Zuzendaritza Nagusiak ematen duen txosten loteslearen eskaera egitera.

UPOa garatzeko, jabetza-sozietateak Ezkirotzeko S-2 sektoreko Plan Partziala sustatu zuen Galar Zendeako Udalaren aurrean, eta hasierako onarpena 2002ko urtarrilaren 17an jaso zuen.

2003ko martxoan, Hegazkingintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren idazkariordetzak Udalari jakinarazi zion ez zuela sustapen hori baimenduko, honako bi arrazoi hauek zirela-eta:

– Batetik, eremu horren zati bat Segurtasun Zonaldearen barruan dago, eta, beraz, 1875/1973 Dekretuak araututako Aireportuko zortasunen mende.

– Eta bestetik, 60 dB-ko kurba isofonoaren barruko zonaldean dagoenez, ezin dira etxebizitzak eraiki.

Ondorioz, 2003ko azaroaren 6ko saioan, Galar Zendeako Udaleko udalbatzak uko egin zion Ezkirotzeko S-2 sektoreko Plan Partziala behin betiko onartzeari.

Galarreko Udalaren ezezkoa jaso ondoren, 2003ko abenduaren 17an, eragindako lursailaren jabe zen enpresak ondare-erantzukizuna eskatu zion Udalari, gutxi gorabehera, 3.461.154,41 euroko kalteagatik, eta errekurso bat jarri zuen.

2004ko azaroaren 4an, Udaleko txostenak eta hainbat administrazio publikok egindako txostenak kontuan hartuta, udalbatzak erabaki zuen S-2 sektoreko plangintza aldatzea (orain, S-4); horrela, beste banaketa-area bat eratu (BA-8) eta bertako erabilera bereizgarritzat ekonomia-jarduera jarri zuten.

Jendaurreko informazio-denboran, sozietateak alegazioak jarri zizkion espedienteari, eta bere aprobetxamendua bizitegi-zoruen banaketa-arearen batean sartzeko eskatu zuen (BA-3 edo BA-6).

Negoiazioei berriro ekin eta gero, Udalak eta sozietateak konponbide bat adostu eta, 2005eko martxoaren 22an, hitzarmen bat sinatu zuten. Udalak partzialki aintzat hartu zuen aurkeztutako alegazioa, eta eragindako lursailak sailkatzeko proposamena onartu zuen; horrez gain, eremuko 11.604 m²-ak S-1 eta S-2 sektoreetan adskribatzea eta banatzea ere onartu zuen.

Galarreko Udalak, halaber, S-1 eta S-2 sektoreetako (orain sektore bakarra osatzen dute) Plan Partziala sustatzeko konpromisoa hartu zuen, bai eta une horretan egikaritze-unitate bakarra mugatzeko ere, auzilariaren sozietateari zegokion aprobetxamendua barne hartuko zuena, hain zuzen.

Bestalde, sozietateak Galar Zendeako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren aurka zituen ondare-erantzukizuneko demandak erretiratzeko konpromisoa hartu zuen, eta Udalaren aurkako ekintza orori berariaz uko egin zion, lehengo S-2 sektoreko Plan Partzialaren espedientetik ondorioztatutako ekintzak eta egin berri zuten akordioa zirela-eta.

111/2004 prozedurarako bidea eman zuen demanda atzera botako du Nafarroako Gobernuak Ezkirotzeko Udal Planeko Egitura Xedapenak Aldatzeko espedientea, hitzarmen-gaiari buruzkoa, onartzen denean. Hala eta guztiz ere, aipatutako espedientea aurrez azaldutako baldintzetan konpondu bitartean, bi aldeek agindu zuten Auzi Epaitegian prozedura urtebeteko epean eteteko eskatuko zutela, ahalik eta azkarren.

Aldaketa izapidetu egin zen, eta 4/2006 Foru Aginduaren bidez onartu zuten. Beraz, S-2 sektoreko eremua bi zati ia berdinetan banatu zen: zati bat S-1 sektoreari adskribatutako Sistema Orokorizat sailkatu zen (bizitegi-erabilera), eta, bestea, merkataritza-erabilera geratu zen.

Sinatutako hitzarmena eraginkor bihurtzearen ondorioz, administrazioarekiko auzietako magistratuak (3. zk.) errekurtsoa behin-behinean artxibatzea erabaki zuen (111/2004 prozedura arrunta), 2005eko maiatzaren 6an; beraz, egoera horretan jarraituko du, aldeetako batek prozesu-jarraipena premiatzen ez duen bitartean.

Udaleko arduradunek hitzarmena transakzioztat jo zuten, ez hirigintza-hitzarmentzat. Gure iritziz, hirigintza-hitzarmen bat da, adostutako presazioen ezaugarriak kontuan hartuta, eta, beraz, araudian zehaztutakoari jarraiki (zehazki, Lurralde

Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen IV. kapituluak) izapidetu, argitaratu, erregistratu eta artxibatu egin behar zen. Hitzarmenak egin diren lursailen ezaugarri bereziak direla-eta, espedientean hitzarmena arrazoitzen duten txosten teknikoak, juridikoak, ekonomikoak eta aditu-txostenak agertu behar dira; horrez gain, honako alderdi hauek aztertu eta bermatu behar dituzte, besteak beste: lehengo S-2 eremuko 11.605 m²-en sailkapenaren balorazioa, 2. eta 4. sektoreetan egindako aldaketak, eta Ezkirotzeko S-1/S-2 sektorean mugatu beharreko egikaritze-unitatearekiko adskripzioa.

- Barbataingo hirigintza-hitzarmena

UPOn bizitegi-lurrak jartzeko egindako aurreikuspenetan, ez zen Barbatain kontuan hartu, eta, beraz, horren ondoren, "2. eskualdea" izeneko industrialdea sortu da. Nafarroako Gobernuaren asmoa, berriz, industrialde horren ondoren beste industrialde handi bat egitea zen: "3. eskualdea".

Udala eta jabeak, ordea, ez zetozen bat asmo horrekin.

Bestalde, etxebizitzaren gehiegizko garestitzeari aurre egiteko politikari jarraiki, Nafarroako Gobernuak eskualdeko udalerrien laguntza eskatu zuen, lurzoru-multzo handiak sortzeko. Ildo horri jarraiki, Udalarentzat beharrezkoa da Barbatain bizitegi-lurzoruak sortzea, eta, bertan, BOEak ezartzei bultzada handia ematea.

Bizitegi-lurzoruak ugaritzean, halaber, hornidura, ekipamendu eta zerbitzu gehiago beharko dira, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritu beharko da.

Jabeei Udalaren asmoen berri eman ondoren, jabeek Udalari eskatu zioten hori gauzatzeko behar ziren prozedurei berehala ekiteko, eta, gainera, egin behar horretan laguntzeko konpromisoa hartu zuten.

Udalak eta Barbataingo jabeak hirigintza-hitzarmen bat sinatu zuten; hitzarmen horren hasierako onarpena 2003ko abenduaren 11n izan zen, eta, gero, 2004ko martxoaren 4an, behin betiko onartu zuten.

Udalak agindu du Barbataingo aipatutako lursailetan beste hirigintza-antolamendu bat izapidetu eta onartuko duela; horretarako, UPOren "egitura-aldaketa" egingen da. Horri esker, gutxi gorabehera 1.031.137 m²-ko lurra lurzoru urbanizagarritzat sailkatu eta antolatuko da, eta, batez ere, bizitegi-erabilera izango du.

Lurzoru urbanizagarrien xedapenetan honako aurreikuspen hauek daude bizitegi-erabilerari dagokionez:

Bizitegiarako eraikitako metroak, guztira	342.000
Merkataritzarako azalera	45.000
Familia bakarreko etxe isolatuak	180
Etxebizitza kolektiboak	1.280
Duplexak/elkarri atxikitakoak	840
	389.300

Jabeek agindu dute dagokien aprobetxamenduaren %30 sortuko den banaketa-areari lagapenean utziko diotela.

UPOren aldaketaren hasierako onarpena egiteko indarraldia bi urtekoa da; baina, bi aldeak ados jarriz gero, epe hori urtebete luza daiteke.

Aipatutako epean onartuko ez balitz, hitzarmena automatikoki ebatziko da.

UPOren aldaketaren hasierako onarpena lortzeko, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuarekin dagokion administrazio-hitzarmena sinatzea; hitzarmen horren arabera, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartuko du antolamendu berriak beharrezko dituen zerbitzuen hornidurak finantzatzeko, betiere Iruñerriko Lurzoruaren Mahaian hartutako konpromisoak betez.

Hitzarmena, izatez, bertan behera gelditu da. Ingurumen Departamentuarekin hainbat aldiz bildu arren, ez ziren akordio batera iritsi, eta ez zuten lortu Eskualdeko Hirigintza Arauak aldatzea; aldaketa hori, hain zuzen, ezinbestekoa zen hitzarmenean aurreikusitako UPOren aldaketa gauzatzeko.

Proiektuarekin aurrera egiteko, Udalak hitzarmena aldatzea proposatu zuen, eta, horretarako, UPOren berrikuspenean egitea. 2005eko irailaren 1ean, Udalak eta jabeak beste hirigintza-hitzarmen baten aurrekordioa sinatu zuten; baina, akordio hori ez da izapidetu ere egin, eta dirudieenez, gainera, ez da gauzatu, ez baita lortu Eskualdeko Hirigintza Arauak aldatzea.

Hitzarmen bereziak egiten diren hirigintza-eragiketen garrantzia kontuan hartuta, espedientean txosten teknikoak, juridikoak, ekonomikoak eta aditu-txostenak agertu behar dira, eta horiek eragindako zonaldea aldatzeko proposamena justifikatu behar dute, hitzarmeneko beste hainbat alderdiren artean; halaber, zona horretarako kalkulaturako beharrak aintzat hartuz, etxebizitza-eskera eta –premiak (babes ofizialekoak barne) baloratu behar dituzte.

Azken batean, 2003ko eta 2005eko Barbataingo hitzarmenak ez dira exekuzio-fasera pasatu Nafarroako Gobernuaren Departamentuarekin akordiorik egin gabe, udal-aurreikuspenak (bizitegi-eremu bihurtzea) jendaurrean jarri eta jabearekin horretarako konpromisoa hartu arren. Egiaztatu ahal izan denez, Udalak eta Nafarroako Gobernuak Barbataingo lurren erabilerari dagokionez duten iritzia desberdina dela-eta, Udalak automatikoki ebatziko diren hitzarmenak egin ditu.

- Lurzoruaren Mahaia, hirigintzako lankidetzahitzarmena

Nafarroako Gobernuaren eta Galarreko Udala nahiz eskualdeko beste 13 udalen arteko hitzarmena –Lurzoruaren Mahaia administrazio arteko hitzarmena– 2004ko uztailaren 29an egin zen udalbatzan onartu zuten.

Besteak beste, honako hizpaketa hauek azpimarratu behar dira:

- Hitzarmena sinatu zuten udalek babes ofizialeko etxebizitzak egiteko bizitegi-erakunde handitu egiten dute, 23.000 etxe gehiago, gutxienez; horrez gain, beste 15.000 gehitu behar dira, epe laburrera eraikitzen has daitezkeenak (2007an). Beraz, 2014. urtera bitartean, 38.000 etxe egingo dira, guztira.

- Bestalde, sinatzaileek adierazi zuten ahal zen neurrian gainditu egin nahi zituztela bi forulegetan –Lurralde eta Hirigintza Antolamendurako Foru Legean eta Etxebizitzaren Babes Publikoa zehazten duen Foru Legean– derrigorrezkotzat eta gutxienezkotzat jotzen ziren ehunekoak; hau da, helburua etxebizitza guztien %65, gutxienez, babestutakoak izatea zen.

- 6 hilabeteko epean, Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua Eskualdeko Hirigintza Arauak berrikusten hasiko da, eta 18 hilabeteko epean onartua izanen da.

- Nafarroako Gobernuak plangintza gauzatzeko egiten diren kanpo-kontratazioen aurrekontuaren %80 finantzatuko du; salbuespen-kasu batzuetan, ordea, finantziarioa %100era ere iritsi daiteke, eta, horrez gain, bizkor eta arduratsu jokatu du, bizitegi-garapen berrietarako beharrezko diren foru-eskumenak emateko.

- Sinatzaileek antolamendu juridikoak ematen dizkien ahalmenak baliatuko dituzte etxebizitza babestuen aurreikuspenen eraginkortasuna bermatzeko.

Hirigintza-kudeaketari dagokionez, honako hau aholkatzen dugu:

- *26.1. artikuluan zehaztutako hitzarmen-erregistroa garatzea, eta, aldi berean, prozedura bereziak ezartzea; hain zuzen, Udalaren lurzoru-ondarean eragina duten eragiketak eta, bereziki, diruaren ordainetan lagatako hirigintza-kargen eragiketak erregistratzeko eta horien finantza- eta kontabilitate-jarraipena egiteko aukera ematen dutenak.*

- *Hitzarmenek –bereziki, eraikigarritasuna aldatzen dutenek eta diruaren ordaineko lagapena aurreikusten dutenek (aprobetxamenduaren %10aren ordeko kuota ekonomikoa, Udalarentzat)– espedienteari erantsitako balorazio-txosten egokiak izan behar dituzte oinarri.*

- *Bestalde, sinatutako hitzarmenetan, aldi baterako programazioa azaldu behar du; hau da, hitzarmena betetzeko eta eskubideak kobratzeko epeak zehaztuko dira, lanak eta kobrantzak epe zehatzik gabe atzera ez daitezela.*

- *Gure iritziz, Udalez gaindi eragina duten hitzarmenak behar bezala betetzeko, lehenik eta behin entitate publikoek (Udala eta Nafarroako Gobernua) ados jarri behar dute, eta, gero, hitzartutako konponbidea eta horren euskarri diren txosten teknikoak oinarri hartuta, administrazio arteko hitzarmena edo plangintza-hitzarmena sinatu behar dute jabetzarekin. Horrez gain, sinatutako hitzarmen oro jendaurrean behar beste denboran jarri dela bermatu behar da.*

- *Lurzoruaren Mahaiaren helburuak lortzeko Udalak emandako laguntzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak eta Udalak Barbataingo hirigintza-erortzunerako dituzten plangintza desberdinak aztertu ditugu. Udalak adierazi digunez, Nafarroako Gobernuak “Gendulain”i dagokionez hartuko dituen erabakien zain dago, Zendeako plangintzari eta etxebizitza-eraikuntzari (bereziki, BOEak) buruzko erabakia hartzeko; horretarako, hain zuzen, abian jarritako UPOren berrikuspena hartuko du oinarri.*

- *Galariako industrialdean haurtzaindegia edo eskolaurreko hezkuntza-zentroa sortzeko hitzarmena*

2003ko maiatzaren 14an, sinatzaileek –alkatea, Nafarroako Gobernuko hiru kontseilari eta zonalde horretako sektore pribatuko enpresetako hiru zuzendari nagusi– lankidetzan aritzea adostu zuten 0-3 urteko haurrentzat eskolaurreko hezkuntza-zentro berritzaile bat jartzeko, Galaria industrialdeko lursail batean (Udalaren jabetzakoa); zentroan, bederatzi unitate egonen lirerateke eta 108 haurrek izanen lukete lekua.

Sustatzailea Udala da, eta S-5 sektoreko P.60 lursaila eman du haurtzaindegia jartzeko (Cordovillako Plan Partzialean adierazi da); lursail horrek 1.655 m² ditu, eta 0-3 urteko hezkuntza-zikloa jartzeko programan zehaztutako ohiko baldintzak betetzen ditu. Halaber, moduluaren arabera, funtzionamendu-gastuen %25 bere gain hartuko du, eta, ekarpen hori egiteko, kide egin diren enpresek hitzarmenak egiten ditu.

2007ko martxoan egiaztatu ahal izan genuenez, ez dute gauzatu 2003an haurtzaindegia jartzeari buruz egin zuten hitzarmena.

Hitzarmeneko oinarritzko zenbait elementu oraindik adosteko daude; esaterako, ezarri beharreko hezkuntza-eredua, zentroaren titulartasuna eta kudeaketa-eredua, eta finantziarioa sinatu zuen alde bakoitzak azkenean jarri beharreko ehunekoa. Hori dela-eta, 2005eko inbertsioen kontusaila erabili gabe gelditu da, eta haurtzaindegirako enplegu baten eskaintza publikoa ez da egin, ez eta bete ere.

- *Iruñeko hitzarmena, bi udalerrien artean (Iruña eta Galar Zendea) Multzoko Plana onartzeko; zehazki, Sadar-Cordovilla zonaldean.*

Galar Zendeako Udalak honako gai hauek hitzartu zituen, besteak beste, 2006ko ekainaren 10ean:

Hitzarmenean zehaztutako konpromisoak iraungitza emateko Iruñeko Udalak egindako proposamenaren aurkako iritzia agertzea. Galarreko Udalaren iritziz, hitzarmenean eremu horretarako zehaztu ziren antolamendu-irizpideek ezin hobeak izaten jarraitzen dute.

Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari eskatzea Multzoko Plana egiteko, dokumentua idatzi duen taldeak aurkeztutako antolamendua aintzat hartuta; plan horretan, gainera, kudeaketa-eremu homogeenak eratuko dira, eta, beraz, jabe guztien eskubideak eta betebeharrak orekatuak izanen dira. Eskaera departamentuari egin zitzaion, ezinezko izan baitzen bi udalerririk ados jartzea.

Hitzarmen bat sinatu aurretik, Udalak honako hauek egin beharko lituzke:

- *Haurtzaindegiko beharren premia eta lehen-tasuna ebaluatu.*

- *Proposamena egin eta programatu, ebaluazio-emaitzetan oinarrituta. Hitzarmena sinatu aurretik, aldeek egiaztatu behar dute ados daudela hitzarmeneko oinarritzko elementuekin, eta, horrez gain, zehaztutako prozedurei jarraiki, bermatu behar dute hori gauzatzeko behar diren bali-*

abideak (hitzartuak eta erreserbatuak) eskura dituztela. Hala izan ezean, arriskua dago sinatutako hitzarmenek eta onartutako udal-aurrekontuek balio bakarra izatea, egiazko oinarriak ez duten itxaropen hutsalak islatzea, hain zuzen.

Aztertutako hitzarmenetan argi ikus daitekeen, Galar Zendeako Udalak zailtasun handiak ditu Nafarroako Gobernuaren eta/edo Iruñeko Udalaren eskumenei eta ardurei ere eragiten dieten proiektuak aurrera ateratzeko. Entitate bakoitzak bere interesei ematen die garrantzia; ondorioz, proiektuek ez dute aurrera egiten edo gelditu egiten dira, eta, beraz, dauden premiei ez zaie dagokien erantzuna ematen.

Udala dagoen lekuaren eremu guztian gero eta premia handiagoak daude lurralde-antolamenduari eta BOE etxebizitzari dagokienez (Lurzoruaren Mahaiaren hitzarmenean jaso dira), eta, gainera, UPOn BOEak eraikitzeak aurreikuspenak egin dira; hori guztia dela-eta, beharrezkoa eta premiakoa da Udala eta tartean dauden entitateak formula bereziak sortzera behartzea. Hau da, entitate bakoitzaren autonomia eta kudeaketaren eskubide ekonomikoak errespetatuz, gizarteak (hau da, udalerriko eta eremu horretako biztanleek) eskatutako lurralde-antolamendurako proiektuak eta zerbitzu eta bizitegi-lurrak prestatzeko proiektuak

programatzen eta epe-barruan betetzen laguntzeko formulak sortu behar dituzte.

- Udalaren lurzoru-ondareari dagokionez, ez da bertan sartzen diren lursailen edo esku-diruen sarrera-erregistro berezirik sortu; era berean, ondare-inbentarioan ez da adierazi sarrera horiek lotesleak edo bereizleak diren.

Horri dagokionez, eta Udalaren lurzoru-ondarea Udaleko gainerako ondasunetatik bereizita dagoen ondarea dela kontuan hartuta, honako hau aholkatzen dugu:

Udalaren lurzoru-ondarea Udaleko gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzea, eta ondasun-inbentarioan bakoitza loteslea edo bereizlea den adieraztea.

Udalaren lurzoru-ondarearen erregistro bat sortzea; bertan, lursailen edo esku-diruen sarrerak erregistratuko dira, bai eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legean zehaztutako helburuetarako modu justifikatuan egiten diren irteerak ere.

V.13. UDALAREN EGOERAREN BALANTZEA

Galarreko Udalaren egoeraren balantzeak honako itxura hau zuen, 2005eko abenduaren 31n:

AKTIBOA	2005	2004	aldak. %
lbilgetua	3.418.289,56	2.746.704,38	24
Materialak	-727.555,36	83.699,80	
Ez-materialak	23.517,79	0,00	
Erabilpen orokomerrako azpiegiturak eta ondasunak	4.119.471,74	2.660.149,19	
Hemi-ondasunak	2.855,39	2.855,39	
Finantzarioak	0,00	0,00	
Lagapenean edo adskripzioan dauden ondasunak eta eskubideak	0,00	0,00	
Zirkulatzaila	6.097.777,36	120.413,01	4.964
Aurrek. itxiaren eta aurrekontuaz kanpoko zordunak	135.016,17	83.458,48	
Aurrekontuaren zordunak	2.118.035,90	321.291,84	
Finantza-kontuak	3.844.725,29	-284.337,31	
Aktiboa, guztira	9.516.066,92	2.867.117,39	232
PASIBOA	2005	2004	
Funts berekiak	8.730.220,47	2.356.022,54	271
Ondarea eta erreserbak	7.264.591,17	1.199.914,23	505
Emandako ondasunak eta eskubideak	0,00	0,00	
Ekitaldiko ekonomia-emaizak	1.465.629,30	1.156.108,31	27
Epe luzerako zorrak	0,00	0,00	
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	0,00	0,00	
Epe motzerako zorrak	785.846,45	511.094,85	54
Aurrek. itxiaren eta aurrekontuaz kanpoko hartzekodunak	86.547,06	41.999,53	106
Aurrekontuko hartzekodunak	717.299,39	469.095,32	53
Pasiboa, guztira	9.516.066,92	2.867.117,39	232

2005eko balantzearen egoerak aldaketa garrantzitsuak erakusten ditu 2004. urtearekiko, bai kopuru orokorretan (%232), bai kapitulu desberdinetan (ez dute oinarri sendorik).

– **Ibilgetua**

Udalak ez du ondasunen inbentario eguneratu eta errealik, ez eta Udalaren lurzoru-ondasunen inbentario eguneraturik ere; beraz, ez dute islatzen 2001ean UPO onartu zenetik egin diren ondasunen eta eskubideen “lagapenen” eta jabetzeen egoera.

Lagapenean utzitako eta/edo jabetzan hartutako “UAS”ak behar bezala erregistratu, jarraitu eta kontrolatu behar diren eskubideak dira. Espezieetan egindako lagapenen “erregistratze-ohar txiki batzuk daude”; baina horien erreferentziak eta zerrendak ez daude behar bezala eginda, eta, beraz, ezin zaie jarraipen egokia egin.

Ondasunen alta emateak erregistratu diren kasuetan, dagokien epigrafea gaizki esleitu dela ikus daiteke; esaterako, udaletxeko edo kiroldegiko lanak “Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak” kontuan daude sartuta, “Ibilgetu materialak” kontuan egon beharrean.

2005eko “Ibilgetu materialak” eta 2004ko “Finantza-kontuak” ataletan zenbateko negatiboak

aurki daitezke (-727.555 € eta -284.337 €, hurrenez hurren), baina datu horiek okerrak dira.

– **Ibilgetu materialak**: kopuru negatibo horiek agertu dira; izan ere, lursailak eta benetako beste ondasun batzuk besterentzean izandako irteerak kontabilizatu arren, ondasun horien sarrerak ez dira kontua hartu, jabetzan hartu ziren datan zuten balioarekin. Hori dela-eta, irteera orok kontabilitaterako balio negatiboa adierazten du, Udalaren jabetzan dauden ondasun materialen inbentarioa ez baitago kontabilizatuta. Beraz, koherentziarik gabeko balantzea eragiten du, eta, horrek, gainera, azken emaitzan ere eragina du.

– **Finantza-kontuak**: 2004an agertzen den saldo negatiboa (-284.337 €) ez dator bat diruzaintzako finantza-egoeran 2004ko ekitaldi-amaieran agertzen den kopuruarekin (3.904.202 €); hain zuzen, kopuru hori agertu beharko litzateke 2004ko finantza-kontuetan.

Alde hori sistemak egindako tratamendu oker baten ondorio izanzen da; zehazki, balantzeko kopuruen urteko kalkulua ateratzean egindako hutsaren ondorio. Akats horiek, hain zuzen, funtsean desitxuratu egiten dute finantza-egoerei buruzko informazioa.

Udalak diruzaintza-gerakinaren honako egoera hau aurkeztu du:

	2005eko ekitaldia	2004ko ekitaldia	Aldakuntzaren %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	2.214.417	347.557	537
+ Diru-sarreraren aurrekontua: ekitaldi amunta	2.118.036	321.292	
+ Diru-sarreraren aurrekontua: ekitaldi itxiak	120.015	83.450	
+ Aurrekontuaz kanpoko diru-sarrerak	15.001	9	
- Bilketa zaila duten eskubideak	36.635	57.194	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	785.846	511.095	54
+ Gastuen aurrekontua: ekitaldi amunta	717.299	469.095	
+ Aurrekontuaz kanpoko gastuak	68.547	42.000	
+ Diruzaintzako funts likidoak	3.904.002	3.904.002	0
± Finantziazioaren desbideraketa metatu negatiboa	107.927	0	0
+ Diruzaintza-gerakina, guztira	5.440.499	3.740.464	31
Diruzaintza-gerakina, gastu orokorretarako	5.440.499	3.740.464	45

Galar Zendeako Udala egoera onean dago; izan ere, diruzaintza-gerakinaren zenbateko garrantzitsua da, eta, gainera, ez du zor edo mailerik, ez eta finantza-gasturik ere.

Oharrak:

– Aurkeztutako gerakinaren egoeran, funts likidoen kopuru bera zegoen 2005ean eta 2004an; aldiz, 2005eko ekitaldi-amaieran, baliabide likidoak 3.844.725,29 eurora iritsi ziren, eta ez 3.904.002 eurora. Gerakina, hain zuzen, 5.381.222 eurokoa zen.

– Bankuen arteko transferentziak ez dira egunean kontabilizatzen. Ikusi ahal izan dugunez, ekitaldiaren zati handi batean, diruzaintzako zenbait kontutan kontabilitate-saldo negatiboak izan dira; izan ere, irteerak kargatu dira, baina ez sarrerak. Urte bukaeran, beraz, saldoak koadratzeko, kontabilitate-saldoak bankuko benetako saldoen arabera doitzen dituzte; hau da, kontu bateko saldoan soberan dagoena kontu defizitarioko saldoan sartzen dute, koadra dezan.

– Kontaketak eta banku- nahiz kontabilitateberdinkatzeak egitean, araututako prozedura bat

jarraitu behar da, bai eta, 33. arauari jarraiki, kontabilitate sinplifikatua egitean ere. Diruzaintzak egiten dituen kontaktak ez dira gordetzen, ez ditu idazkariak sinatzen, eta ez dituzte beste pertsona edo langile batzuek baliozkotzat jotzen.

Geratzen den berdinkatzea ekitaldi-amaieran egiten dena da, eta hori kontu orokorren parte da.

– Gastuak eta sarrerak kontabilizatzeko, diruzaintza-kutxaren liburuko oinarrian egindako ordainketak eta kobrantzak hartzen dira oinarri.

– Banku-funtsak erabili ahal izateko, derrigorezkoa da baimendutako hiru pertsonetatik (alkatea, idazkaria eta diruzaina), gutxienez, bi pertsonaren sinadura bateratua izatea. Egiaz, ordaintzeko banku-transferentziak “Clavenet” sistemaren bidez egiten dira, diruzainaren baliozkotze-baimenarekin; izan ere, azken horrek zuzenean bi gakoak sartzen ditu (berea eta idazkariarena edo alkatearena). Ez dago gehieneko mugarik finkatuta, “Clavenet” sistemaren bidez ordaintzeko.

– Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeatzaileak berak kudeatzen dituen zergen banku-kontua kontrolatzen du, bai eta agentzia exekutiboarena ere; kultura-koordinatzaileak, berriz, bere alorreko kontua; eta, azkenik, kiroldegi-kudeaketaren arduradunak beretzat erabiltzen dituen bi kontuak.

Aipatutako akatsek (bereziki, aurkeztutako behin betiko egoerei eta funts-kudeaketei buruzkoak) agerian uzten dute barne-kontrolaren ahultasuna, bai eta finantza-egoerek aurrekontu- eta ekonomia-jarduera kudeatzeko eta kontrolatzeko tresnatzat duten erabilera txikia ere.

– Zordunak. Aurrez aipatu bezala, oraindik kobratzeko daude Cordovillan BOEak egiteko saldutako lursailen zenbatekoa (846.764 €) eta bi obra-baimenen zenbatekoak: bata Cordovillako S-4 sektoreko PC-2 eremuan 35 etxe egiteko baimenari dagokiona (628.240 €), eta, bestea, “Morea” eraikin komertziala handitzeko baimenari dagokiona (235.340 €).

2006ko apirilaren 24an, alkatearen dekretu bidez, 10.763 euroko kreditu kobraezinaren adierazpena onartu zen; horietatik, gutxienez, 7.398 € 1993-1999 urteei dagozkie.

– Hartzekodunak. Saldoan zenbait gastu daude sartuta, eta, bereziki, udaletxe berriaren obra-ziur-

tagiria; horri dagozkion fakturak, hain zuzen, ekitaldi-amaieran aurkeztu ziren.

Gomendioak:

- *Ondasunen eta eskubideen inbentario eguneratu eta osatu bat ezartzea eta horren jarraipena egitea, 273/98 Foru Legearen 101. arauan eta ondorengoetan adierazitakoari jarraiki. Udalbatzaren osoko bilkuran, inbentarioari egiten zaizkion urteko zuzenketak onartzea.*

- *Barne-kontrola indartzea, finantza-eragina duten eragiketa guztiak erregistratu eta, dagokienean, kontabilizatu egiten direla eta finantza-egoerek entitatearen errealitate ekonomikoa islatzen dutela ziurtatzeko; halaber, kontrol-tresnek nahiz finantza-egoerek programazio- eta kudeaketa-tresna baliagarritzat balio dutela ziurtatu behar da, horrela kobratu behar den guztia kobratzen dela eta ordaindu behar den guztia ordaintzen dela bermatuko baita.*

- *Kontabilitateko egoera-orriak sistematikoki eta aldiari behin berrikusten direla bermatzea; aurrekontu horiek egiten eta aurkezten hautemandako funtsezko akatsen jatorria aztertzea (hau da, informatika-sistemaren arazoak diren eta/edo langileek datuak erabiltzean sortutako arazoak diren); eta, azkenik, akats horiek berriro gerta ez daitezen beharrezko neurriak hartzea.*

- *Funtzioak egoki banatuta daudela eta oinarritzko funtzioak behar bezala betetzen direla bermatzea; bereziki, gastu, kobratze eta ordainketen baimen-emateak, idazkaritza, kudeaketa (kontabilitatekoa barne), diru-zaintza eta kontu-hartzailatza. Udalaren interesak eta kudeatzen dituen zenbatekoak aintzat hartuta, egokia litzateke Udalak ekonomia- eta kudeaketa-alorrak indartzeko eta kontu-hartzailatza eta hirigintzako zerbitzu teknikoak betetzeko aukera kontuan hartzea; horretarako, langileak hartuko lirateke, lan-talde propioan edo mankomunitatean. Gastuak gehiegizkoak direla iritzi gero, giza baliabide egokiak lortzeko bide berriak bilatzea; esaterako, beste toki-entitate batzuekin lankidetzan aritzea.*

- *Gutxienez hilean behin, banku-berdinkatzeak egitea, finantza-erakunde bakoitzean kontabilitateaz arduratzen den diru-zaintzaren saldoa ekitaldi-amaieran egiaz dagoen zenbatekora doitzeko.*

V.14. UDALEKO EKONOMIA-EMAITZA

Deskribapena	2005	2004	Deskribapena	2005	2004
Langileria	409.159	366.758	Salmentak	216.026	222.599
Finantza-gastuak	0	0	Jabetza-errenta	12.832	91.312
Lana, hornikuntza eta kanpo-zerbitzuak	731.487	712.275	Zergak	2.997.544	2.697.186
Ohiko transferentziak	647.309	788.281	Ohiko zergak	196.894	176.313
Kapital-transferentziak	494.911	489.474	Ohiko transferentziak	387.703	329.536
Kalkulaturiko gastuak	0	0	Kapital. gaineko zerga	0	0
Ohiko emaitza negatiboa	0	0	Bestelako diru-sarrerak	0	30.303
Inbertsio-salmentan izandako galerak eta aparteko bestelako galerak	0	0	Ohikoen emaitza	1.528.131	1.190.459
Finantza-aktiboen salmentan izandako galera	0	0	Inbertsio-salmentan izandako irabaziak	0	0
Aurrekontu itxien bajak	63.868	42.252	Finantza-aktiboen salmentan izandako irabaziak	0	0
Emitza negatiboa	0	0	Aurrekontu itxien altak eta preskripzioak	1.366	7.901
			Ekitaldiko ekonomia-emaitza positiboa	1.465.629	1.156.108

Oharra: kontabilitate sinplifikatuari buruzko 273/98 Foru Dekretuari jarraiki, ekonomia-emaitza kalkulatzeko, 6. eta 7. kapituluak ez dira kontuan hartuko ("Inbertsio-gastuak" eta "Kapital-transferentzien sarrerak eta beste batzuk", hurrenez hurren).

Entitateak ekonomia-emaitza positiboa aurkeztu du, 2005. ekitaldirako; zehazki, 1.465.629 eurokoa.

Egindako azterketari esker (aurreko kapitulu eta epigrafeetan deskribatu da), zenbait zuzenketa eta doikuntza egin dira, eta horiek ekonomia-emaitzaren egitura eta kalkulua erabat aldatu dute.

Ekonomia-emaitzaren zenbatekoari dagozkion doitzeak soilik kontuan hartuz –hau da, gastuak eta diru-sarrerak dagozkien ekonomia-kapituluetan ez sailkatzeak eragindakoak sartu gabe (horiek, funtsean, egiturari eragiten baitiote)–, honako doitze hauek hartu behar dira kontuan, 2005eko ekitaldiko ekonomia-emaitza kalkulatzeko:

2005eko zuzendutako ekonomia-emaitzaren kalkulua, eurotan	
	ZOR HARTZEKO
Ekonomia-emaitza	1.465.629.
Gastu-doikuntza (-)	161.375
Diru-sareren doikuntza (+)	396.425
Zuzendutako ekonomia-emaitza positiboa	1.700.680
Aldea	235.050

Kontusailen araberako doikuntzen xehetasunak 2. eranskinean adierazi dira.

V.15. BARNE-KONTROLA

Txosten honetan, alor bakoitzari dagokionez, barne-kontrollean eragiten duten oharra eta aholkuak eman ditugu.

Segidan, barne-kontrolaren zenbait alderdi azalduko ditugu, kontabilitate- eta finantza-kudeaketari buruzkoak, bereziki; izan ere, gure iritziz, horiek ere arduradunen arreta merezi dute.

– Gastuei eta diru-sarerei dagokienez, kontabilitaterako kutxa-irizpidea erabiltzen da, oro har, eta, horretarako, egindako kobrantzak eta ordain-

ketak soilik hartzen dira kontuan. Ekitaldi-amaieran, bestalde, ordaintzeko eta kobratzeko dauden gastuen eta sareren zenbateko aitortua kontabilitatzen da. Kontabilitate-kudeaketarako, 273/1998 Foru Dekretuan kontabilitate sinplifikatuari dagokienez zehaztutako arauak jarraitzen dira, eta, horrez gain, kanpo-enpresa bati kontratatutako programa informatikoak erabiltzen dira.

Kontabilitate-prozesuaren ikuspegiari dagokionez, entitateak ez ditu errespetatzen eskatutako kontabilitate-etapak (ADOP); batez ere, aurrekontua betetzeko, baimenak formalizatzeko eta beharrezko diren dokumentuak erregistratzeko araudi- an eskatutakoak.

Alderantziz jokutzen da. Gastuei dagokienez, zerbait erosi, horren faktura jaso eta ordaindu ondoren soilik kontabilizatzen da sisteman, eta, gero, kontabilitate-agiriak egin eta horiek sinatzen dira.

Sarrerei dagokienez ere, prozedura bera da.

Egindako funtzioak ez dira entitatean behar bezala justifikatu, ez baitira aurkeztu aurrez zehaztuta zeuden eta jarraitu behar diren baimenak; zehazki, honako hauek justifikatzen dituztenak: zenbatekoak eta eragiketa-motak, erosketak eta fakturak baimentzeko eta onartzeko prozesuen dokumentuak, data jarritako eta sinatutako dokumentuen igorpenak, erosketa-baimenen eta fakturen sarrera- eta irteera-erregistroak, azterketa-zerrendekin egindako berrikusteak, eta, azkenik, berdinkatzeak.

Kontabilitate-dokumentuetan agertzen diren kobrantza- eta ordainketa-datak kontabilizazio-datei dagozkie, eragiketak kontabilizatu baino lehen egin ziren arren; hori dela-eta, eragiketa-datak eta kontabilitate-datak berdinak dira.

– Funtzioak ez bereizteak arriskua izan dezake kontabilizazio-prozesuetan, diruzaintzan, edota gastuen eta diru-sarreraren kudeaketan.

Bestalde, kontabilitate-programetarako sarbidea ez dago ezkutuko eta banakako pasahitzen bidez bermatuta.

Kontabilitate-sisteman, esaterako, ez da derri-gorrezkoa beste pertsona baten baliozkotze-baimena, sinadura paper gainean soilik eskatzen baita.

Kontabilitate-idazpenetan ez da behar kontratu-dokumentuari, fakturari edo kitapenari buruzko erreferentziarik; erreferentzia horrek, hain zuzen, kontabilizatutako ekonomia-egintzaren oinarritzat balio du.

– Sistemak automatikoki eman dezake ekonomia-emaizta eta balantzea; baina, normalean, zuzeneko oharxoak egiten dituzte, eta horiek azken emaitza aldarazten dute. Balantzearen eta diruzaintza-gerakinaren egoerei dagokienez ikusi aipatutako akatsak.

– Kontabilitate-programak ez daude beste programa informatikoekin konektatuta; konexio horrek, ordea, ekonomia-eragiketen kontabilitate-kudeaketa erraztu dezake.

Kontaketa-sistemarekin, aurrekontu-kapituluko gehieneko zenbatekoa gaindi daiteke. Hau da, kontabilitatean kopuru hori egon ez arren, inbentariotik irteerak onar ditzake, eta, beraz, balantzearen ondasun materialetan kopuru negatiboak sor daitezke.

– Txostenean adierazi den bezala, ez dago inbentariotik, eta, horrez gain, ibilgetu materialaren, ez-materialaren, azpiegituren, herri-ondasunen, eta ondasun- nahiz eskubide-lagapenen balantze-egoera ez dago eguneratuta.

Txosten hau José Fuertes Pérez ikuskariak proposatuta eman da, bera baita lan hau burutze-ko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2007ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. eranskina. Galar Zendeako Udaleko finantza-egoerak, 2005eko abenduaren 31n

I.1. ERANSKINA. UDALEKO AURREKONTUAREN KITAPEN-EGOERA, EKONOMIA-KAPITULUEN ARABERA - 2005EKO ABENDUAREN 31.

SARRERAK	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorrutako eskubideak	Egindako kobrantzak	Aitort. eskub.	
					Betetze-maila	%
Kapitulua					Aurrek. guzt. arab.	Kobrantzak %
Zuzeneko zergak	859.056,00	859.056,00	913.389,98	859.574,71	%106,3	%16,8
Zeharkako zergak	1.825.280,00	1.825.280,00	2.281.047,47	1.360.624,87	%125,0	%42,1
Tasak eta beste sarrera batzuk	198.100,00	198.100,00	216.025,64	197.770,68	%109,0	%4,0
Ohiko transferentziak	329.600,00	329.600,00	387.703,22	387.703,22	%117,6	%7,2
Ondare bidezko diru-sarrerak	102.000,00	102.000,00	12.832,08	12.832,08	%12,6	%0,2
Inbertsio errealen besterentzea	6.737.482,06	6.737.482,06	858.920,93	12.156,34	%12,7	%15,8
Kapital-transferentziak	2.862.744,00	2.862.744,00	751.371,09	472.592,61	%26,2	%13,9
Finantza-aktiboak	0,00	487.454,06	0,00	0,00	%0,0	%0,0
Finantza-pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Sarrerak, guztira	12.914.262,00	13.401.716,12	5.421.290,41	3.303.254,51	%40,5	%100,0
GASTUAK						
Kapitulua						
Langile-gastuak	436.286,00	436.286,00	409.159,26	409.159,26	%93,8	%10,6
Gastuak, ohiko ondasunetan zerbizuetan eta	899.400,00	899.400,00	731.487,45	677.209,57	%81,3	%19,0
Finantza-gastuak	2.000,00	2.000,00	0,00	0,00	%0,0	%0,0
Ohiko transferentziak	728.550,00	728.550,00	647.309,07	382.478,37	%88,8	%16,8
Inbertsio errealak	9.570.026,06	10.057.480,12	1.561.647,62	1.371.743,87	%15,5	%40,6
Kapital-transferentziak	1.278.000,00	1.278.000,00	494.911,12	286.624,06	%38,7	%12,9
Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Finantza-pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Gastuak, guztira	12.914.262,06	13.401.716,12	3.844.514,52	3.127.215,13	%28,7	%81,3

AKTIBOAK	2005/12/31	2004/12/31
Ibilgetu materiala	3.418.289,56	2.746.704,38
Ibilgetu materiala	-727.555,36	83.699,80
Ibilgetu ez-materiala	23.517,79	83.699,80
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	4.119.471,74	2.660.149,19
Herri-ondasunak	2.855,39	0,00
Finantza-ibilgetua	0,00	0,00
Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0,00	2.885,39
Ibilkorra	6.097.777,36	120.413,01
Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko zordunak	135.016,17	83.458,48
Aurrekontu-zordunak	2.118.035,90	321.291,84
Finantza-kontuak	3.844.725,29	-284.337,31
AKTIBOAK, GUZTIRA	9.516.066,92	2.867.117,39

PASIBOA	2005/12/31	2004/12/31
Funts berekiak	8.730.220,47	2.356.022,54
Ondarea eta erreserbak	7.264.591,17	1.199.914,23
Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0,00	0,00
Ekitaldiko ekonomia-emaitza	1.465.629,30	1.156.108,31
Epe luzerako zorrak	0,00	0,00
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	0,00	0,00
Epe laburreko zorrak	785.846,45	511.094,85
Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	68.547,06	41.999,53
Aurrekontuko hartzekodunak	717.299,39	469.095,32
PASIBOAK, GUZTIRA	9.516.066,92	2.867.117,39

ABENDUAREN 31n

EKONOMIA-EMAITZAREN EGOERA, 2005eko ABENDUAREN 31n

Deskribapena	2005	2004	Deskribapena	2005	2004
Langileria	409.159	366.758	Salmentak	216.026	222.599
Finantza-gastuak	0	0	Jabetza-errenta	12.832	91.312
Lanak, hornikuntzak eta kanpo-zerbitzuak	731.487	712.275	Zergak	2.997.544	2.697.186
Ohiko transferentziak	647.309	788.281	Ohiko zergak	196.894	176.313
Kapital-transferentziak	494.911	489.474	Ohiko transferentziak	387.703	329.536
Kalkulatoriko gastuak	0	0	Kapital. gaineko zerga	0	0
Ohiko emaitza negatiboa	0	0	Bestelako diru-sarrerak	0	30.303
Inbertsio-salmentan izandako galerak eta aparteko bestelako galerak	0	0	Ohikoen emaitza	1.528.131	1.190.459
Finantza-aktiboen salmentan izandako galera	0	0	Inbertsio-salmentan izandako irabaziak	0	0
Aurrekontu itxien bajak	63.868	42.252	Finantza-aktiboen salmentan izandako irabaziak	0	0
Emaitza negatiboa	0	0	Aurrekontu itxien altak eta preskripzioak	1.366	7.901
			Ekitaldiko ekonomia-emaitza positiboa	1.465.629	1.156.108

Oharra: kontabilitate sinplifikatuari buruzko 273/98 Foru Dekretuaren arabera, ekonomia-emaitza kalkulatzeko, 6. eta 7. kapituluak ez dira kontuan hartuko –“Inbertsio-gastuak” eta “Kapital-transferentzien sarrerak eta beste batzuk”, hurrenez hurren– (751.371,09)

I.4. ERANSKINA. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA, 2005-12-31n.

GALARREKO UDALA

Kontzeptua	2004ko ekitaldia	2005eko ekitaldia	Aldaketaren %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	347.556,79	2.214.416,66	%537,14
+ Diru-sareren aurrekontua: ekitaldi arrunta	321.291,84	2.118.035,90	%559,22
+ Diru-sareren aurrekontua: ekitaldi itxiak	83.449,69	120.014,87	%43,82
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sararak	8,79	15.001,30	
- Bilketa zaileko eskubideak	57.193,53	38.635,41	-%32,45
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	511.094,85	785.846,45	%53,76
+ Gastuen aurrekontua: ekitaldi arrunta	469.095,32	717.299,39	%52,91
+ Gastuen aurrekontua: ekitaldi itxiak	0,00	0,00	
+ Aurrekontuaz kanpoko gastuak	41.999,53	68.547,06	%63,21
+ Diruzaintzako funts likidoak	3.904.001,80	3.904.001,80	%0,00
+ Finantziazioaren desbideraketa metatu negatiboa	0,00	107.926,94	
+ Diruzaintza-gerakina, guztira	3.740.463,74	5.440.498,95	%45,45
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	0,00	0,00	
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0,00	0,00	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.740.463,74	5.440.498,95	%45,45

I.5. ERANSKINA. AURREKONTU-EMAITZAREN EGOERA, 2005-12-31n.

GALARREKO UDALA

Kontzeptua	2004ko ekitaldia	2005eko ekitaldia	Aldaketaren %
+ Aitorturiko eskubide garbiak	4.092.504,85	5.421.290,41	32,47
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	4.379.507,39	3.844.514,52	-12,22
= Aurrekontu-emaizta	-287.002,54	1.576.775,89	-649,39
Doikuntzak			
- Finantziazioaren desbideraketa positiboa	0,00	199.256,93	0,00
+ Finantziazioaren desbideraketa negatiboa	89.789,76	75.472,29	-15,95
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	285.270,92	0,00	-100,00
Merkataritza-eragiketen emaitza	0,00	0,00	0,00
Aurrekontu-emaizta doitua	88.058,14	1.452.991,25	1.550,04

2. eranskina. Ekonomia-emaiza doitia, 2005eko abenduaren 31n

ZOR						
Deskribapena	2005. urtea	Doikuntzak	Doitia	Udalari dagozkion gastuak	Gastuetan aurreikusitako doikuntzen azalpena	
61 Langile-gastuak	409.159,26	7.731,00	416.890,26	1. kap.: Langile-gastuak (kap. guztia)	Kop. garbia: bata 2004ari dagokion gastu bat, baina 2005ean kontabilizatu zena (-3.376,00: zinegotzientzako diru-kopuruak); eta, bestea, 2006an kontabilizatu, baina 2005ari dagokiona (1.1.107,00: 05/4. hiruh., aholkularia)	
62 Finantza-gastuak	0,0	0,0	0,00	3. kap.: finantza-gastuak		
64 Lanak, homikuntzak eta kanpo-zerbitzuak	731.487,45	0,00	731.487,45	2. kap.: ohiko ondasunen gastuak (kapitulu osoa)		
67 Ohiko transferentziak	647.309,07	153.643,63	800.952,70	4. kap.: ohiko transfer. (kap. osoa)	Kop. garbia: 2005ari dagokion gastu bat, baina 2006an kontabilizatu zena (226.897,26: zinegotzientzako dirulaguntzak, zergak direla-eta), ken 2005ean kontabilizatu, baina 2004ari dagokiona (-67.193,03: zinegotzientzako dirulaguntzak, zergak direla-eta), gehi 2005ean kontabilizatu baina aurrekontuaz kanpoko kontuari zegokiona (6.060,60: zinegotzientzako dirulaguntzak, toki-aholkularitzetarako jasotako dirulaguntzak direla-eta)	
68 Kapital-transferentziak	494.911,12	0,00	494.911,12	7. kap.: kapital-transfer. (kap. osoa)		
69 Kalkulatoriko gastuak	0,00	0,00	0,00			
D80 Ekitaidiko ekonomia-emaiza negatiboa	0,00		0,00			
D82 Inbertsio-salmenten galerak eta aparteko bestelako galerak	0,00		0,00			
D83 Finantza-aktiboen salmentaren galerak	0,00		0,00			
D84 Aurrekontu itxien bajak eta balio gabetzeak (sarrerak)	63.868,22		63.868,22	Saldoa igotzea. Batuketa: sarreraren aurrekontu itxien liburuan hainbat eskubide eta sarrera balio gabetzea (63.365,69 €) eta gastuen aurrekontu itxietan altak ematea (502,53).		
D89 Ekitaidiko ekonomia-emaiza negatiboa	0,00		0,00			
	2.282.866,90	161.374,63	2.444.241,53			

HARTZEKO					
Deskribapena	2005. urtea	Doikuntzak	Doitua	Udalari dagozkion sarrerak	Sarreretan aurreikusitako doikuntzen azalpena
70 Salmentak	2.16.025,64	300.784,74	5.16.810,38	3. kap.: Tasak eta bestelako sarrerak (kap. guztia)	Batuketa: 2005eko kanon eolikoaren sarrera (22.006,26 € BEZ gabe) + 3. kapituluko 550. artikuluari (administrazio-emakiden produktua) dagokion hormidura-kanona, 7. kapituluan kontabilizatu zena (278.778,48)
71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	12.832,08	35.345,34	48.177,42	3.kap.: ondare-sarrerak eta herri-ondasunen aprobetxamendukoak	Gordailu-kontuen eta funtisen finantza-eteकिनak, 2005ean sortuak baina 2006an kontabilizatuak.
72 Produktzioari eta inportazioari loturiko zergak	2.997.543,56	0,00	2.997.543,56	Landa-kontribuzioa eta hiri-lumen kontribuzioa (354.884,59 €) + EIZ (361.611,50 €) + 2. kap. -EIOZ- (2.281.047,47)	
73 Errentaren eta ondarearen gaineko ohiko zergak	196.893,89	0,00	196.893,89	lbigailuen gaineko zergak	
76 Ohiko transferentziak	387.703,02	-6.060,60	381.642,42	4. kap.: Kontu-transfer.	2005ean aurrekontu-sarerratzat kontabilizatu zen, baina egokiagoa zen aurrekontuaz kanpoko kontuan sartzea (6.060,60; tokiko aholkularitzaie egindako diru-laguntzen sarerrak)
77 Kapitalaren gaineko zergak	0,00	66.355,58	66.355,58	Lursail-balioa handitzea (gainbalioa); ez dute 2005ean sartu	Gainbalio likidoen gubxi gorabeherako sarrera 2006an kontabilizatu zen, baina 2005an dagokio (66.355,58).
78 Bestelako diru-sarrerak	0,00	0,00	0,00		
H80 Ekitaldiko ohiko emaitza	3.810.998,19	396.425,06	4.207.423,25		
H82 Irabaziak inbertsioak besterentzean eta bestelako inbertsio errealak	0,00		1.763.181,72		
H83 Finantza-aktiboaren salmentaren irabaziak	0,00				
H84 Aurrekontu itxien altak eta preskripzioak	1.366,03				Saldoa igotzea. Batuketa: sarreraren aurrekontu itxien liburuan hainbat eskubide eta sarreraren alta ematea (1.262,45) eta gastuen aurrekontu itxian bajak ematea (103,58€).
H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	1.465.629,30	235.050,43	1.700.679,73		
Aurreitiko oharra: kontabilitate sinplifikatuari buruzko 273/98 Foru Dekretuaren arabera, ekonomia-emaiza kalkulatzeko, gastuei buruzko 6. kapituluan (inbertsioak: 1.561.647 €) eta sarrerei buruzko 6. kapituluan (inbertsio-besterentzeak: 858.920 €) gain, sarrerei buruzko 7. kapituluan ere (kapital-transferentziak eta beste sarrera batzuk: 751.371,09 €) ez da kontuan hartzen.					

3. ERANSKINA. GALAR ZENDEAKO UDALAREN FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERAREN AZTERKETA

2005eko ekitaldiko Galar Zendeako Udaleko finantza- eta ekonomia-egoera eta 2000-2005 bitartean izan duen bilakaera aztertzeke, honako ratio hauek baliatu dira, berak aurkeztutako datuak oinarri hartuta:

Urtea	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Biztanleak	1.154	1.233	1.256	1.306	1.342	1.408
Gastuak guztira/bizt.	1.626	1.994	1.936	1.980	3.263	2.730
Funtzionamendu-gastuak/bizt.	359	484	629	701	804	810
Ohiko gastuak/bizt.	883	835	1.020	1.046	1.391	1.270
Ordainketen betetze-maila %			%83	%93	%89	%81
Inbertsio garbia /bizt.	663	594	896	561	1.507	1.109
Inbertsio-indizearen %	%41	%30	%46	%28	%46	%41
Langileria-indizearen %	%8	%7	%11	%12	%8	%11
SARRERA-ADIERAZLEAK						
Sarrerak guztira/bizt.	1.764	3.512	3.483	1.740	3.050	3.850
Zerga bidezko sarrerak/bizt.	1.302	771	1.344	1.351	2.307	2.422
I. ohikoak/bizt.	1.494	942	1.577	1.644	2.621	2.707
Kobrantzak betetzearen %			%94	%96	%92	%61
Kontu-transfer. mendekotas.	%10	%4	%6	%11	%8	%7
SARREREN ETA GASTUEN ADIERAZLE BATERATUAK						
Aurrezki gordina	704.849	131.386	699.761	780.877	1.649.631	2.023.043
Aurrezki gordina/bizt.	611	107	557	598	1.229	1.437
Finantza-karga/bizt.	3.216	0	85	7	0	0
Aurrezki garbia/bizt.	608	107	557	598	1.229	1.437
Zorpetze-mailaren %	%0	%0	%0	%0	%0	%0
Zorpetze-ahalmena	%41	%11	%35	%36	%47	%53
Zorpetze-mugaren %	%41	%11	%35	%36	%47	%53
Zor argia/bizt.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Diruzaintza-gerakina, orokorrak/bizt.	gastu				2.787	3.864
Aurrekontu-emaiza, gabe/superabita	doitu	158.894	1.871.441	1.943.613	-313.199	-287.003
Aurrekontu-emaiza, gabe/bizt.	doitu	138	1.518	1.547	-240	-214
Aurrekontu-emaiza, doitu					88.058	1.452.991
Aurrekontu-emaiza doitu/bizt.					66	1.032

Entitateak finantza-egitura ona izan du, eta, horri esker, hobekuntza-inbertsioak egin ahal izan ditu.

Aztertutako ekitaldietan aurrezki garbiaren superabita egon da; gainera, aurrezki garbia aurrezki gordinaren berdina izan da, ez baita finantza-kargarik egon. Zergek eragindako ohiko sarrerak ohiko gastuak baino ugariagoak izan dira, eta, beraz, funtzionamendu sendoa duen finantza-egitura utzi du agerian. Nafarroako herrien batez bestekoarekin alderatuz, biztanle bakoitzeko sarre-askoz ere handiagoak izan dira.

Zuzendu gabeko aurrekontu-emaizaren arabe-
ra, egoera orokorra positiboa da, 2003an eta 2004an Udalak finantzatutako inbertsioak ere kontuan hartu arren.

Zorpetze-ahalmenean ez da egindako zorren eraginik izan; hau da, ez da inolako zorpetze-mailarik eta finantza-kargarik izan.

Funtzionamendua bermatzeko, entitateak ez du transferentzien mendekotasun handirik; hain zuzen, egin beharreko lanak egiteko, administratziotik ez du dirulaguntza handirik jaso.

GALAR ZENDEAKO UDALEKO ALKATEAK EGINDAKO ALEGAZIOAK

2007ko ekainaren 12an, Galarreko Udaleko Erregistro Orokorrean Nafarroako Comptos Ganberak 2005eko ekitaldiari buruz egindako behin-behineko txostena jaso zen; beraz, alegazioak aurkezteko emandako 15 egun naturaleko epearen barruan, Ricardo Ariz Imizcoz jaunak, Galarreko Udaleko alkateak, honako alegazio hauek egin nahi ditu:

1. Txostenaren azterketa-aldia

Txostenaren zenbait ataletan (“1. Sarrera,” “2. Helburua” eta “3. Norainokoa”) adierazi denez, Comptos Ganberak Galarreko Udaleko 2005eko ekitaldiko kontuen fiskalizazioa egin du.

Hala eta guztiz ere, ikusi ahal izan denez, txostenean fiskalizazioaren azterketa-aldia zabaldu egin da, beste aurrekontu-ekitaldi batzuetan hasitako zenbait kontratu eta txosten ikuskatu baitira; beraz, Comptos Ganberak Udalarri jakinarazitako betekizunaren xedea eta helmena gainditu ditu.

Udal honen arabera, egokiagoa zen txostena Ganberak berak adierazitako zereginera mugatu izan balu, edo, hala izan ezean, hurrengo ekitaldian ikuskapen osoa egin izan balu.

2. Fiskalizazio-txostenaren edukia

Txostenaren arabera, Udaleko ekonomia- eta finantza-jarduera legezkotasun-printzipioari jarraiki egin da, oro har, eta, gure ustez, txostenaren edukia iritzi hori bultzatzen du.

Bestalde, txostenean, forma-akats txikiak nabarmendu dira, batez ere; 2005ean, ordea, udalerrri honetan azken 20 urteetan izandako proiektu garrantzitsuenak egin ziren, eta txostenean ezer edo gutxi aipatu da proiektu horien kudeaketa eta kontrol egokiari buruz. Hori dela-eta, harrigarria deritzogu forma-akats txiki batzuek txosteneko hainbat paragrafo betetzea, eta, aldiz, Udalaren kudeaketa egokiari buruz esaldi bakar bat ere ez idaztea.

Gainerakoan, txosteneko zenbait alderdi azpimarratu behar dira, esaterako:

A.- Baliteke emandako aholku batzuek alegiazkotasunik ez izatea, ez baitaude Galarreko Udalaren menpe. Hau da, aurrekontuen betetze-maila txikia azpimarratu denean, txostenean bertan erantzukizun hori beste administrazio publiko batzuen gain ere jarri da (foru-administrazioa eta kontzejua).

Logikari jarraiki, eta aurrekontuak errealista izan behar duela aintzat hartuta, azpimarratu

behar da bertan argi adierazten dela Udalak proiektuak betetzeko duen asmo sendoa. Beste gauza bat da aurrekontuko hainbat kontusail –Nafarroako Gobernuaren nahiaren eta Zendeako kontzejuen jarduera propioaren mende daudenak– bete gabe gelditzea; hain zuzen ere, administrazio publiko horien mende daudelako. Txostenean bertan ongi adierazi den bezala, horren guztiaren adibide garbia da Galariako merkataritza-parkean aurreikusitako haurtzaindegia.

B.- Txostenean, halaber, antolaketa- eta plangintza-irizpideei buruzko aholkuak eman dira, eta udalbatzak kontuan hartu eta behar bezala baloratuko ditu, gogoaren baitakoak baitira. Bestalde, txostenean badira zenbait gai, legezkotasunari buruzkoak izan ordez, antolaketa-aholkuekin lotuta daudenak; beraz, zerbitzu teknikoak kontratatzearen komenentzia eta zerbitzu hori beste udalerrri batzuekin mankomunitatean izateko aukera ikuskari-taldearen antolaketa-irizpide bat baino ez dira.

Zerbitzu-antolaketa eta –plangintza Udalaren autoantolaketa-ahalmenaren adierazle direla kontuan hartuta, Udalak behar bezala baloratuko ditu era horretako aholkuak, bere eskumenak legitimo ki gauzatzen dituenen, are eta gehiago zerbitzu hori pertsona bakar batek, hainbatek edo pertsona juridiko batek ematea nahiz bere eskumenak mankomunitatearen esku uztea erabakitzeke ardurari dagokionean.

Era berean, “Hirigintza” alorrari dagokionez, txostenean legearekin baino politika- eta antolaketagaiekin lotura estuagoa duten aholkuak eman dira; beraz, Udalak halakotzat baloratuko ditu, behar bezala, berari baitagokio hirigintza- eta etxebizitza-plangintzaren politika diseinatzea eta lehenestea.

C.- Aholkularia kontratatzea. Udal hau ez dator bat txostenean agertutako iritziarekin, are eta gehiago ikuskariaren ustea edo iritzia egitezkotzat hartzen duenean. Hau da, ikuskariaren iritzi kontratua behin-behineko kargu bat izendatzeko nahari badagokio ere, egiaz zerbitzu profesionalen kontratu bat da; hori da, gainera, karguari eman nahi zaion izaera.

Sinatutako kontratua baliozkoa da (zerbitzuak alokatzeko kontratua), eta ordainketa aurrekontuan dago sartuta, gainera; hain zuzen, urtero, I. kapituluaren baitan, kontusail espezifiko bat bideratzen da kontratu hori ordaintzeko. Hau da, udalbatzak gehieneko ordainsaria duen kontusail espezifiko bat onartzen du urtero, kontratu espezifiko horretarako.

Aurrekoari jarraiki, II. kapituluan sartu ordez, kontratu hori aurrekontuen I. kapituluan sartzearen

egokitasuna edo egokitasun falta baloratuko du Udal honek.

D.- Okerreko ordainketak erregularizatzea. Udal honi harridura eragin dio langileei egindako ordainketa okerrak erregularizatzeko txostenean emandako aholkuak; izan ere, ikuskariak jakin badaki ordainketa horiek akatsa aurkitu bezain laster erregularizatu zirela. Horregatik, ez da ulertzen txostenaren 15. orrialdean aholku hori ematea.

E.- Barne-kontrola. Ikuskari-taldeari jakinarazi zitzaion bezala, Galarreko Udalak ekonomia-aholkularitzan laguntzeko kontratazio-espeditente bat ireki du, fiskalizazioaren eta barne-kontrolaren lanak Udalak behar bezala kudeatu ditzan; horrela, Comptos Ganberak emandako aholkuak ezarri eta gauzatu dira.

3. Udalaren esker-ematea Ganberak egindako fiskalizazio-lana dela-eta.

Udaleko ordezkari naizen aldetik, beharrezko iruditu zait Comptos Ganberari bertako lehendakariaren bidez eskerrak ematea, bai agertutako zehaztasun eta interesagatik, bai emandako aholku gehienetan asmatzeagatik. Eskertzekoa da udal-langileei beren zereginak hobeto antolatzen laguntzeko ikuskari-taldeak agertutako jarrera, urte asko igaro baitira Udal hau azkenekoz ikuskatu zutenetik; hain zuzen, hori izan daiteke txostena hain luzea izatearen arrazoia.

Emandako aholkuak kontuan hartuko ditugu guztiok, eta, hori, noski, zerbitzuaren hoberako izango da.

Getzen, 2007ko ekainaren 26an

Alkatea: Ricardo Ariz Imízcoz

Galar Zendeako Udaleko alkateak egindako alegazioen erantzuna

GALAR ZENDEAKO UDALEKO ALKATEAK, RICARDO ÁRIZ IMIZCOZ JAUNAK, EGINDAKO ALEGAZIOAK JASOTA, FISKALIZAZIO-TXOSTENARI ERANTSI ZAIZKIO, OSO-OSORIK.

Horiei dagokienez, honako ohar edo zehaztasun hauek egin nahi dira:

1. Txostenaren azterketa-aldia

Comptos Ganberak fiskalizazio-gai ziren kontratuak eta espeditenteak aztertu ditu, horiek izan dituzten hainbat etapa kontuan hartuta; hau da, prestaketa- eta onarpen-alditik hasi eta gauzatu nahiz ondorengo jarduerak egin arte, baita fiskalizatutako urtearen (2005) ondorengoak ere. Gure iritziz, hala egin behar da kontratuen eta espediten-

teen betetze-mailaren ikuspegi oso bat izateko, eta hori beharrezkoa da gure iritzia emateko, are eta gehiago entitatea aurrez ikuskatu edo fiskalizatu ez denean.

Comptos Ganberak lana egiteko beharrezko iruditzen zaion fiskalizazio-aldia aztertzen du, fiskalizazio-helburuei ondo arrazoitutako erantzunak eman ahal izateko.

2. Fiskalizazio-txostenaren edukia

Txostenaren IV. kapituluan ("Iritzia"), ondare-egoerari, ekonomia-emaitzari eta aurrekontu-kitapenari nahiz legezketasunari buruz dugun iritzia eman dugu, eta, horrez gain, materialtasunagatik dagozkion funtsezko alderdiak eta alderdi esanguratsuak aipatu ditugu; horiek, hain zuzen, behar bezala aztertu behar dira, okerrak zuzentzeko neurriak hartzean.

V. kapituluan, egindako oharren berri eman dugu, eta, aldi berean, aholku zehatzak proposatu ditugu.

Kudeaketa egoki baterako aproposak ez diren alderdiak adieraziz oharrak egitea, eta ondare-egoeraren benetako errealitatea, kudeaketa-emaitzak eta ekonomia-egintzak derrigorrezko kontuetan jasotzeko aholkuak ematea; barne-kontrola eraginkorra izatea eta gastuak eta sarrerak behar bezala kudeatzen direla bermatzea, bai eta esku-bideak galtzeko arriskuak ezabatzen eraginkortasunez laguntzea ere; eta, azkenik, legezketasuna zintzotasunez betetzea (bereziki, aurrekontuari, kontratazioei eta hirigintzari dagokienez). Alderdi horiek guztiak, hain zuzen, fiskalizazio-elementuak dira, eta, beraz, duten garrantzia ez da gutxitu behar, eta ez dira "forma-akats txikitzat" hartu behar.

Segidan, A, B, C, D eta E ataletan dauden alegazioei buruz egin ditugun oharrak azalduko ditugu.

A atala: aurrekontuek kudeaketa-tresna eraginkorrak eta zorrotzak izan behar dute, indarrean dauden aldi osoan; hau da, prestatzen direnetik, bete eta likidatzen diren arte. Gainera, benetako premiei erantzun behar diete (aurrez, urteko zuzkiduretan ebaluatu eta kalkulaturakoak), eta ez funtsezko oinarririk ez duten itxaropenei. Une oro, betetze-mailaren benetako aurreikuspenen bilakera eta behin-behinean egin beharreko egokitzapenak jaso behar dira aurrekontuetan; izan ere, horrela, desbideratzeen bidez, aurrekontu-kitapenak saihestuko dira (inbertsioen %85, esaterako).

B atala: puntu honen lehenengo bi ataletan oharren eta aholkuen ezaugarriak, garrantziari eta

esanahiari buruz azaldukoak hartuko dugu kontuan.

C atala: alkatearen aholkulari juridikoaren kontratuan, lehenengo klausulan, honako hau dago adierazita, hitzez hitz: "Galar Zendeako Udaleko alkatearen kargua betetzeko, beharrezkoa du behar besteko laguntza eta aholkularitza juridikoa" eta "kargu politikoa den heinean, eta, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretuaren 87. artikuluari jarraiki toki-entitatearen zerbitzurako behin-behineko langileak izendatzeko duen eskumenaren babesean, kontratu hau egin du".

Kontratu horren laugarren klausulan, alkateari eskumena ematen zaio kontratatutako aholkularia nahi duenean kargutik kentzeko; bestalde, klausulan zehazten denez, aholkulariak kargua utziko du alkateak berea uzten duenean.

Kontratuaren helburua alkateari laguntza eta aholkularitza juridikoa ematea da, eta, horretarako, behin-behineko langileak kontratatuzeko Estatutuko 87. artikulua (Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileei buruzkoa) ematen dion eskumena baliatzen du. Kontratazioa izendapen askearen bidez egiten da, eta kontratu-iraupena alkate-karguarekin parekatzen da; horrez gain, kontratatutako aholkularia nahi denean kargutik ken daiteke. Ezaugarri horiek guztiek osatzen dute, hain zuzen, behin-behineko langileen erregimen juridikoa.

Jurisprudentziak adierazten duen bezala, kontratuak ez dira sailkatzen interesatuek ematen die-

ten izendapenagatik, baizik eta duten betebeharmultzoagatik.

Hala ere, zerbitzu profesionalen kontratu bat dela eta, beraz, kontratuarentzako legediaren men-dean dagoela onartuz gero (Udalak adierazten duen bezala), kontratu horri dagokionez honako hau adierazi behar da: batetik, prestaketa-, ebaluazio-, hautaketa- eta esleipen-prozesuetan ez zirela aplikatu argitaratzearen, lehiatzearen eta aukera-berdintasunaren printzipioak, eta, bestetik, kontratua egitean ez zirela jarraitu Nafarroako administrazio publikoetako kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legean (ekainaren 16koa) horretarako zehaztutako prozedurak.

Beraz, Comptos Ganberak berretsi egiten du kontratuari dagokionez txostenean adierazitako iritzia.

D atala: langileei egindako ordainketa okerrak erregularizatzearen baitan, halaber, behar bezala erregistratzea eta kontabilizatzea sartzen dira; horri dagokionez, Comptos Ganberak gogoan hartuko du Galar Zendeako Udalak aipatutakoa bete duela.

E atala: Comptos Ganberak ongi ikusten du Galar Zendeako Udala txostenean eginiko gomendioekin bat egiten duten neurriak ezartzen hasi izana.

Beraz, txostena behin betiko egingo da.

Iruñean, 2007ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	